

PROPOSAMEN SOZIOEKONOMIKOA



Lan hau 2012ko maiatzaren 1ean
argitara eman zen



Alternatiba



ezker abertzalea

PROPOSAMEN SOZIOEKONOMIKOA

| | | |
|-----------|--|----|
| 1. | EGOERA: MUNDUA, ESPAINIAKO ESTATUA, HEGO EUSKAL HERRIA..... | 5 |
| 1.1.- | MUNDUA | 6 |
| 1.2.- | ESPAINIAKO ESTATUA | 8 |
| 1.3.- | HEGO EUSKAL HERRIA | 10 |
| 2. | PROIEKTU ESTRATEGIKOAREN OINARRIAK..... | 15 |
| 2.1.- | EUSKAL HERRI BURUJABEA | 16 |
| 2.2.- | EUSKAL HERRI EUSKALDUNA ETA JENDARTE KOHESIOA BILATZEN DUENA..... | 16 |
| 2.3.- | ALTERNATIBA INTEGRALA BEHAR DU EUSKAL HERRIAK | 16 |
| 2.4.- | ALTERNATIBA ERAIKITZEKO PRINTZIBIOAK ETA HORREN OINARRI DIREN BALOREAK..... | 17 |
| 3. | BURUJABETZA EKONOMIKOAREN BEHARRAZ..... | 23 |
| 3.1.- | EGUNGO MARKOAK ERAKUSTEN DIZKIGUN MUGAK | 24 |
| 3.2.- | ZERTARAKO DUGU MARKO INSTITUZIONAL BERRI BATEN BEHARRA?..... | 26 |
| 3.3.- | INDEPENDENTZIA POLITIKO ETA INSTITUZIONALAZ | 27 |
| 4. | EUSKAL HERRIKO EREDU EKONOMIKO ETA SOZIAL BERRIA. JARDUN-EREMUAK ETA PROPOSAMENAK..... | 29 |
| 4.1.- | KRISI EKONOMIKOARI AURRE:INBERTSIOARIK ONENA, EUSKAL HERRIA..... | 30 |
| 4.2.- | KRISI EKOLOGIKOARI AURRE | 41 |
| 4.3.- | KRISI SOZIALARI AURRE | 44 |
| 4.4.- | HIZKUNTZA ETA KULTURA SOZIOEKONOMIKOAREN IKUSPEGITIK | 49 |

1.

EGOERA:
MUNDUA,
ESPAINIAKO ESTATUA,
HEGO EUSKAL HERRIA

1.1.- MUNDUA

Hamarkada luzeetan, AEBak eta Europa munduko “periferiaren” kontura bizi izan dira, natur ondasunak xahutuz. Halaber, munduan nagusi den sistemaren eraginez, ugalketarako eta bizitzaren iraupenerako lana, oro har, ikusezina da, ez da ordaintzen edo oso prekarizatuta dago. Hamarkadetako garapen eredu eta sistema oso horrek ondorio zehatzak izan ditu eta horrek eragin ditu krisi ekologikoa, elikagaiena, energetikoa, zainketen ekonomiarena eta baita baloreena ere.

Testuinguru honetan, espresuki nabarmendu nahi dugu herrien eta ekonomiaren gorakadek ez dakartela beti ondasunen banaketa orekatua, ezta pertsonen ongizatea ere. Horrela, ekonomiek gora egiterakoan bertan bizi diren herritarren arteko egoera desorekatuek ere gora egingen dihardutela agerikoa da.

Izan ere, Europan eredu ekonomiko neoliberalak aplikatu da nagusiki, Reagan-en eta Thatcher-en gobernuek 80ko hamarkadan ezarritako finantza desarautzean oinarrituta eta “Chicagoko eskola” deritzonaren (Milton Friedman eta abar) postulatuak gauzatu. Horren ondorioz, erabat ezinezkoa izan da Europako Iparraldeko

jendarte eredu kontinenteko gainerako herrialdeetan finkatzea. Jendarte eredu horretan, Estatuak oso zorrotz kontrolatzen ditu errenta ez-produktiboak, ekonomia produktiborantz bideratzeko. Horren ordez, ezarritako eredu neoliberalak ezin irauneko hazkunde politikak sustatu ditu, boterea duten taldeen mesederako soilik. Horregatik, ezinbestekoa da ekonomia produktiboko eredu iraunkor bat ezartzea, espekulazio merkatuen arauketa fiskal erabatekoan oinarritua eta helburu argi batekin: errenta elkertasunez banatzea herritarren artean eta jendarte ehunean.

Nolanahi ere, bultzada neoliberalak azkartu duen kapitalismoaren garapenaren eraginez, ekonomia globalizatuaren “erdigunean” ere krisiaren ondorioak pairatzen ari dira. Krisia aspaldi hasi zen, baina azkenaldi honetan pobrezia eta desberdintasunak areagotu ditu planetako bazter guztietan. Sistema hau bere hedapenaren mugara iritsi da.

Erdigune-periferia eskema zaharrak hautsi egin dira, natur ondasunak agortzen ari dira, lehengaiak gero eta garestiagoak dira eta merkatuak saturatuta daude. Egoera horren aurrean, mozkina tartean hazkunde etengabea bermatzeko, sistemak sektore publikoa deuseztatu du inte-

res pribatuen mesedetan, eskulana merkatu du langileriak eta herri sektoreek konkistatutako eskubideak ezabatuz, eta bizitzaren iraupenerako lana ezkutaturik edo oso prekarizatuta dauka.

Hala ere, krisia ez da ekonomiaren edo finantzen arlokoa soilik. Mundu mailako krisi sistemiko baten aurrean gaude. Horregatik, egoeraren azterketa integral bat egiteak, ekonomiaren edo finantzen atala aipatzeaz gain, bestelako atalak ere garatzea eskatuko luke. Izan ere, krisi hau ekonomikoa eta finantzarioa da; baina soziala, gainproduktiozkoa, munduko hegemoniaren ingurukoa, elikadurari dagokiona, energetikoa, eta ekologikoa ere bai. Irakurketa integral hori kontuan hartzea ezinbestekoa da hausnarketa egiterakoan zein aurrera begirako eginbeharrak zehazteko unean.

Gure eremu politikoetako legedietan jasotako eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak higidura prozesu larria jasaten ari dira. Pairatzen ari garen krisi ekonomikoaren aitzakiarekin, zerbitzu sozialen murrizketak, langabezi tasa handiak, etxe-desjabetzeak, hizkuntza eskubideen urratze etengabea, migratzaile askori oinarritzko eskubide zibilak mugatzea eta tankera horretako beste errealitate batzuk arriskuan jartzen

ari dira eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta zibilak, gaur egun beste garai batzuetan baino askoz ere berme mugatuagoak baitituzte. Gainera, eskubide horiek baliatu ahal izateko beharrezkoak diren mekanismoak eta sistemak ahultzen ari dira, ekitatearen printzipioa ezerezean utziz.

Halaber, azterketa hau egiteko orduan ezinbestekoa da ulertzea sistema kapitalistaren krisia ez dela orain hasi, finantzen ez tandarekin. Gaur egungo sistemak aspalditik dauka planeta osoko jendartearen gehiengoa krisi iraunkor batean murgilduta. Hala, esaterako, krisi ekologikoa aspaldi hasi zen, eta dagoeneko erabat gainditu dugu natur ondasunak ustiatzeko ahalmena.

Sistema horrek berak krisi etengabea dauka lan erreproduktiboa, bizitza zaintzeko lana. Ekonomiaren mapa patriarkaletatik bazterturik dauka, nahiz eta haren oinarri bakarra den lan indarra ez den ezerezetik sortzen, baizik eta ia bakarrik etxeetan egiten den eta bertan ia emakumeek soilik egiten duten zainketa lan ordaindu gabetik.

Bestetik, finantza kapitalismoak garrantzi berezia hartu du. Aberastasuna eta boterea nazioarteko finantza oligopolioetan kontzentratze-

ko prozesuaren ondorioz, gaur egun oligopolio horiek jaun eta jabe dira munduko ekonomian, langileriaren (lan ordaindua egin edo ez) eta finantzazkoa ez den kapitalaren kaltetan. Bai, horrela da, egun finantza kapitalak agintzen du munduko ekonomian, eragiten ari den erabaki nagusienetan eta garatzen ari den ofentsiba neoliberal berrian.

Finantza boterearen indartze eta gorakada hori ekonomia espekulatiboari esker garatu zen. Langile klasearen zorpetzea bultzatuz, 90eko hamarkadan hasi eta 2007ra arte luzatu zen ziklo ekonomiko luze baten garapena ikusi ahal izan dugu. Edonola ere, finantza botereak bultzatutako garapen horren oinarria ez zen ekonomia erreala (hau da, ekonomia produktibotik eta erreproduktibotik sortutako eta irabaziak era solidario eta ekitatiboan banatzen dituen ekonomia), eta goiz ala berandu bereak egin behar zuen. Lehman Brothers “ahaltsuaren” erorketa inflexio puntua izan zen.

Finantza merkatuek beren ezintasunak agerian utzi zituzten. Kapitalismoa birsortu behar zela zioten batzuek, kontrol publikorako mekanismo zorrotzak ezarri behar zirela beste batzuek, paradisu fiskalekin amaitu edota ekonomia errealean oinarritutako sistema berri baterantz abiatu

behar genuela..., krisi kapitalistaren sorburuak sistemaren oinarrietan daudela konturatu gabe, antza. Hala ere, gutxi iraun zuten horrelako hitzek mendebaldeko agintarien ahoetan, batez ere banku nagusiek “merkatuak ureztatzeko behar zuten bilioietako diru laguntzak” jaso ostean.

Denon diruarekin banku nagusiak ondo hornitu eta gero, aipaturiko finantza botereak neoliberalismoaren ofentsiba berri bati ekin dio, oraingoan adreiluaren burbuilatik zorraren burbuilara salto eginez. Bereziki zor publiko edo suberanora. Hau da, sistema ekonomiko mundialak erakutsi dituen muga eta ondorio ekonomiko, sozial, ekologiko eta humano larriak sakon aztertu beharrean, modu itsuan aurrera eginez bilatu nahi izan du irtenbidea. Azken batean, proposatutako irtenbideak kapital handiei begirakoak izan dira, hamarkadetan lortutako ongizate sistemaren kaltetan, eta jendarte eredu jasangarria desegin dute. Era berean, finantza entitate nagusietako arduradun izan direnek, egungo porrot ekonomiko-finantzarioa bultzatu duten horiek beraiek, hainbat estaturen ardura politiko-administratiboa hartu dute, estatuen gidaritza finantza entitateen esku utzita.

Langileriak eta herri sektoreek mendeetan zehar egindako borrokak ekarri zuen Ongizate

Estatuaren sorrera. Hori eta bloke sozialista deitutakoaren hedapenak sortaraz zezakeen atxikimendua murrizteko asmoak ere bai. Izan ere, langileen aldarrikapenen aurrean men egin baitzuten, aldarrikapen horiek harantzago joan ez zitezen. Edonola ere, orain beronen garapenak zor publiko handia eragin duela diote, baina jakina da gastu publikoaren zati oso garrantzitsu bat kapitalaren mesedetan gastatutako obra, azpiegitura edota diru laguntzetan joan dela. Horrek eragin du bereziki zor publikoa. Espainiako Estatuan AHTarekin, aireportuekin edota jendarte zabalak ezertarako behar ez dituen bestelako makro azpiegiturekin gertatutakoak argi eta garbi erakusten du noren mesedetan joan den azken urteetan gorantz egin duen zor publikoa. Alegia, arazoa ez da zor publikoa txarra edo ona den, baizik eta zertarako, noren mesedetan eta zein ondorioekin gastatzen den.

Esan bezala, une honetan, aurrera urratsen birtartez bilatu nahi den ustezko irtenbidean, finantza botereak zor publikoaren burbuila du etekineterako tresna berria. Krisiak eraginez interes tipo altuak eskuratzen ditu zor publikoaren merkatuetan eta, era berean, zor hori etorkizunean kobratu ahal izateko austeritatean oinarritutako politikak inposatzen ditu.

Gastu publikoaren murrizte horrek hiru ondorio larri izango ditu: batetik, sektore publikoaren eta zerbitzu sozialen indarra nabarmen gutxituko da; bestetik, langileen eta, oro har, herritarren lan eta bizi baldintzak kaskartuko dira, batez ere emakumeenak eta sektorerik behartsuenenak; eta, azkenik, ekonomiaren garapen erreala galaraziko da, etorkizuneko krisi ekonomiko eta sozialetarako baldintzak sortuz. Hori bai, hasieran aipatutako finantza oligopolioek etekin ikaragarriak lortuko dituzte, zorraren interesen bitartez, zerbitzu publikoen pribatizazioaren ondorioz eta langileen soldaten kaltetan.

Berez, jakin badakite mendebaldeko herri batzuen egungo zorra kitzatzea jada ezinezkoa dela. Zorra ordaintzeko zorpetze berriak inposatuko dizkiete eta, horrekin, austeritate politika berriak aldarrikatuko dira etorkizunean ere. Austeritate politika horiek ez diote eragingo finantza sistemari, baizik eta herritarrei eta egitura publikoei. Horren ondorioz, erabaki politiko eta ekonomiko larriak hartuko dira.

Finantza boterearen diktadurak eta bere luzapena diren kalifikazio agentziek erabakitzen dute une honetan nork agindu behar duen, zein politika ekonomiko garatu edota zein konstituzio aldatu behar den. Klase politikoaren parte handi

batzen menpekotasuna agerikoa da eta demokraziaren oinarritzko arauak lotsarik gabe urratzen dira. Hainbat hamarkadaren ostean, demokrazia formalaren mugak ageri-agerian geratu dira.

1.2.- ESPAINIAKO ESTATUA

Krisi honetan sartu aurretik Espainiako Estatuak izan zuen garapen ekonomikoa oso argigarria da, eta nazioarteko ekonomian gertatu denaren isla adierazgarria.

90eko hamarkadaren bigarren erdian mundu mailan abiatu den goranzko ziklo ekonomikoak bat egin zuen PPren lehen gobernuarekin. 1996. urtean, lurzoruaren legea aldatu eta higiezinaren burbuila garatzeko oinarriak jarri ziren, lurraren erabateko liberalizazioarekin. Horretan oinarritu da bereziki Espainiako Estatuko ekonomiaren garapena, eta horren inguruan antolatutako turismoaren bultzadan. Mundu mailako krisia iritsi denean, aldiz, “espainiar ekonomiaren miraria” hondarrezko gaztelu baten antzera erori da.

Bestetik, soziologiaren ikuspegitik, Espainiako Estatuko (eta Hego Euskal Herriko) biztanleria piramideko geruzarik zabalena 1976an jaio eta,

beraz, 2006an 30 urte bete zituztenei dago-
kie. Hain zuzen ere, urte horretako azken hi-
ruhilekoan hasi ziren nabaritzen higiezin eta
etxebizitzaren “boom”aren agorpenaren lehen
zantzuak. 1997-2007 hamarkadan, kontsumoa
bultzatzen duten ondasunen eskaria (etxebizit-
za eta automobila) izugarri igo zen piramideko
geruzarik zabalena osatzen zuten artean, eta
horrek hazkunde etengabearen irudipena era-
gin zuen, baina hazkunde horrek denbora muga
nabariak zituen. 2006-2007ko kinka ekono-
miko larrian, inflexio soziologikoa gertatu zen:
aurreko hamarkadako goranzko joera azkarra
beheranzko joera bihurtu zen.

Elkarrekin hain lotura estua duten finantza eta
lurzoru merkatuak arautze ezaren ondorioz,
higiezin eskaintza neurririk gabe hazi zen,
eta emantzipazio prozesuan zeuden gazteen
belaunaldi historikoki zabalaren muturre-
ko zorpetzetik eratorritako errentak higiezin
sustapenaren arloko talde nagusien eskuetara
igaro ziren.

Hala PPK nola PSOEek politika neoliberalak ezarri
dituzte, bertsiorik espekulatiboengan: adreilua
eta lurzorua dibertsifikazioaren ordeztu; “pelota-
zoa” epe ertain eta luzeko planifikazio industrial
eta teknologikoaren ordeztu; subsidioa zerbitzu

publikoen hedapenaren ordeztu... Nekazaritza eta
arrantza ahazturik geratu dira; zainketa lana
emakumeen esku utzi da berriz ere, Menpe-
kotasun Legearen bidez; eta industria asko za-
harkituta geratu dira, Estatuko ekonomia kapi-
talismoaren krisi gero eta larriagoaren aurrean
babesik gabe utziz.

Jendarte ongizatea hobetzeko goi mailako te-
knologian eta I+G+Bn inbertitu beharrenean, Es-
painiako Estatuak etxebizitzaren merkatua eta
lehen aipatutako azpiegiturak erabili ditu eko-
nomiaren motor gisa. Horrek, etorkizunerako
garapena ez bermatzeaz gain, zor publiko ika-
ragarria sortu du.

Estatuak ez dio aurrea hartu nahi izan krisiari, zor
publikoak gora egin du azken hiru urte hauetan
bat-batean hartutako neurrien eraginez, eta bi-
tartean ez da inolako neurririk hartu arazoaren
jatorriari aurre egiteko. Guzti horren ondorioz,
gaur egun Espainiako Estatuak bost milioitik
gorako langabe kopurua du, eta lehen biktimak
emakumeak, gazteak eta etorkinak izan dira.

Espainiako Estatuko zor publikoaren arazoa la-
rria da oso. Azken bi urteotako arduragabeke-
riak ikaragarritzko interes tipoak eragin ditu eta,
besteak beste, Alemaniako bankuei urteetan in-

teres tasa altu horiek ordaindu beharko zaizkie.
Baina arazoa are larriagoa da. 2012-2014 al-
dian Espainiako Estatuak 130.000 milioi euroko
zorra kitatu beharko luke eta, lortzen ez badu,
berriz ere zorpetu beharko da.

Halaber, kontuan izan behar da zor pribatua-
ren arazoa (enpresena eta familia) politika
neoliberalak sortutako erosteko ahalmenaren
jaitsiera larriaren ondorioa izan dela. Politika
horiek European berrindartu ziren euroa ezart-
zeko, eta sortutako eskaera faltaren arazoa kre-
ditu eskuragarritasunaren bidez konponduko ei-
zen. Krisiaren eztearen aurreko 10 urteetan,
familien zorpetzea euren errenta erabilgarria-
rekiko zein enpresen zorpetzea euren ustiapen
soberakin gordinarekiko hirukoiztu egin zen.
Zorpetze hori ez da gertatu “geure ahalmenen
gainetik bizi izan garelako”, baizik eta solda-
tak beharren azpitik egon direlako. Gaur egun
ez dago krediturik, bankuek txorrota itxi dute.
Beraz, familiek eta enpresek zorpetuta jarrait-
zen dute, baina, orain, gastuari eta inbertsioari
aurre egiteko inolako krediturik eskuratu ezinik
dabilta. Zorpetze handi horrek menpekotasun
handia sortu du familia askorentzat, langileria
pairatzen ari den ongizate galeraren aurrean
desmobilizazio soziala, sumisioa eta erantzun
falta eragin nahian.

Horri dagokionez, Mariano Raxoiren Gobernuak hartutako lehen erabakiak finantza botereek inposatutako errezeta hutsak besterik ez dira: aipatutako zorra ordaintzen jarraitzeko austeritatea, hau da, sektore publikoaren eraispena; sektore publikoaren ordeztu pribatizazioa bultzatzea eta eskubide sozialak alboratzea; lan erreformaren bitartez langileen eskubideak murriztea; dagoeneko gauzatzen ari den finantza entitateen biltze prozesua eta entitate horiei diru laguntza gehiago ematea; higiezin burbuila eragin zuten espekulazio baldintzei euste... eta bitartean, adibide gisa, I+G+Brako diru laguntzak murrizten dira.

Ekonomia errearen aldeko apustua egiten ez bada eta, bereziki, sistema ekonomikoaren oinarriak zalantzan jartzen ez badira, etorkizuneko krisietarako baldintzak sortzen dira. Bitartean, egungo krisia langileek eta herri sektoreek pairatu beharko dute, kasu askotan inolako lan eskubiderik gabe eta soldata sistinetan oinarritutako ezkutuko ekonomiaren bitartez.

Laburbidurik: alde batetik, epe laburrean Espainiako Estatuak zorra kitatzeari ekin beharko dio, zorpetze berriekin; bestetik, epe ertainera, bere ekonomia errearen ahultasuna areagotu egingo da, ez baitu inbertsio nahikorik egin. Eta,

inolako zalantzarik gabe, ahultasun hori, garrantzitsua izateaz gain, denboran luzea eta iraunkorra izango da. Alegia, urte asko iraungo duen eta ondorio larriak izango dituen krisi batez ari gara, benetako beheraldi sozioekonomiko batez.

Azkenik, badirudi Raxoiren gobernuak krisi estruktural hau erabili nahi duela orain dela 30 urte martxan jarritako “café para todos” delakoarekin amaitzeko. Diotenez, erabaki artifizial horrek administrazioaren gehiegizko gastua eragin du, eta zentralizazio prozesu bati ekingo zaio, autonomien menpekotasun politiko eta ekonomiko areagotuz eta zerbitzu publikoen nahiz ongizatearen estatuaren eraispena eraginez.

1.3.- HEGO EUSKAL HERRIA

Hego Euskal Herriko ekonomiaren eta egoera sozialaren azterketa egiteko, gaitetik bada ere, diagnostiko labur bat marraztu nahiko genuke, sektorez sektore.

Lehen sektoreari dagokionez, nekazaritzak eta arrantzak pisu txikia dute gure ekonomian, bai-

na, hala ere, azpimarratu nahi dugu bai batak eta bai besteak garrantzi handia dutela herri honetako hainbat eta hainbat eskualdetarako zein garapen integral eta dibertsifikatu baterako. Dena dela, haien garapena oso negatiboa izan da azken urteotan, eta, Bruselako erabakiek gure arrantza kaltetu duten heinean, hainbat hamarkadetan zehar Europak garatu duen nekazaritza politikak ez du batere lagundu, bestelako nekazaritza mota bat bultzatzen duelako, nekazaritza latifundista-intentsibista alegia. Egun, nekazaritza balantza negatiboa da, multinazionalen garrantzia gorantz doa eta elikadura burujabetza urrun dugu.

Industriari dagokionez, zalantzarik gabe Espainiako Estatuko batezbestekotik gora gaudela esan dezakegu, baina ezin gara horretan gelditu. Izan ere, gure ekonomiaren ezaugarriak kontuan izanik, Euskal Herria gurearen aitzeko errealitate ekonomikoekin alderatu behar da. Egia da urte askotan zehar industriak pisu handia izan duela gure ekonomian eta industria handitik industria berrietarako jauzia egiteko gaiterian ginela, baina orobat egia da mundu mailan atzera egin dugula nabarmen. Egun, gure industriak sortutako ondasunen % 60 maila teknologiko apala edo ertaina duten industrietan sortzen dira, eta, gainera, energiaren kontsu-

moari dagokionez, industria gehienak oso intentsiboak dira. Goi mailako teknologia duten enpresak gutxi dira oraindik, eta patente kopurua ere jaitsi egin da azken urteotan.

I+G+Bn inbertitutakoa ekoizpenaren % 2,08 da EAEn eta % 2 Nafarroan. Beraz, urruti dago Europako estrategiak markatzen zuen % 3tik. Logika kapitalistaren barnean, horren ondorioak nabarmenak dira: beren irabaziak bermatzeko, enpresa askok soldaten murrizketaren bidez lehiatzera jotzen dute, eta hori ezinezkoa bazaie deslokalizazioa dator.

Nolanahi ere, bereziki azpimarragarria da Euskal Herritik kanpora joaten den kapital kopuru handia, alegia, atzerrian inbertitzen dena. Beraz, ez dira soilik enpresak deslokalizatu direnak, kapitala ere deslokalizatu egin da. Kapital esportazio gehienen helburua irabaziak optimizatzea da, soldata eta zerga txikiagoak ordainduz edo ingurumenari dagokionez permisiboak diren legediak baliatuz.

Hori ez litzateke gertatuko baliabideak era eraginkorragoan erabiltzea ahalbidetuko lukeen I+G+B eredu baten aldeko apustua egingo balitz, besteak beste. Inolako zalantzarik gabe, garapen sozioekonomikoaren arloan, I+G+Bn inber-

titzea ezinbestekoa da sektore produktibo eta erreproduktiboan eraginkortasuna bermatzeko, natur ondasunen iraunkortasuna errespetatzeko, osasuna eta hezkuntza garatzeko... azken batean, jendarte osoarentzako onura orokorra lortzeko. Hala ere, arlo horretan egindako inbertsioak ez dira nahikoak izan eta, gainera, oro har, egin direnen kudeaketa interesatua izan da eta iruzurra ekarri du. Nagusiki sektore pribatuaren mesedetan inbertitu da, eta inbertsio gehienek oso onura gutxi ekarri dizkiote jendarteari. Gainera, inbertsio horietako asko eraginkorrak eta punta-puntakoak izan direla saldu digute, nazioarteko ikertzaileak kontratatzeke erabili direlako soilik, nahiz eta ez duten batere lagundu bertako ikertzaileak sustatzen.

Bestetik, Euskal Herrian ere porlanaren aldeko politikak aurrekontuen parte oso garrantzitsua eraman du, etorkizuneko belaunaldiak hipotekatuz eta gure lehen sektoreari eta gure ekosistemari kalte ikaragarria eginez.

Zerbitzuen sektorea oso anitza da eta nekez egin dezakegu hemen azterketa zabal bat. Edo-nola ere, atal honetan enpresetarako zerbitzuek izan beharko luketen eta ez duten garrantzia azpimarratu nahi dugu. Era berean, gure ustez garrantzi handikoa da Kutxabank sortu berriak

EAEko hiru herrialdeetako herritarren aurrezkiekin 30.000 milioi euro edukitzea. Helburua hau da: 30.000 milioi euro horiek eskal jendartearen gehiengoaren ekonomiaren mesedetan erabiltzea, horixe baita haien jatorria, eta ez espekulazio soilaren mesedetan kapitalak are diru gehiago irabaz dezan. Horregatik, ezinbestekoa da Kutxabank ez privatizatzea eta izan beharko lukeena izatea: herritarren eta planifikazio sozial eta ekonomikoaren zerbitzura dagoen banku publikoa. Horri dagokionez, Banca Cívicarekin gertatutakoa paradigmaticoa da. Izan ere, lehenik bat-egiteak, gero privatizazioak eta orain La Caixaren esleipen prozesuak garai batean Caja Navarrak izan zituen helburu sozial eta publikoak deuseztatu dituzte.

Azkenik, ukalezina da sektore publikoak garrantzi handia duela gure ekonomian. Nolabait kalitate ertain edo handiko zerbitzuak eskaintzeko aukera izan dugu, baina dagoeneko murrizten eta ekimen pribatuaren esku uzten hasi dira, azken urteotan iraunkortasunaren izenean eta orain "austeritatearen" izenean.

Sektore publikoa azken urteotako xahutze politikaren biktima izan da. Arka publikoak egoera larrian daude, politika fiskal progresibo eta ekitatiboak bultzatzeko borondatea falta da, eta bi

gobernu autonomikoen ezintasunak agerikoak dira. Azken urteotan, bi gobernu autonomikoak Espainiako Estatuko eta munduko gobernuen politika neoliberalen jarraipen itsua egitera mugatu dira eta, gauzak aldatu ezean, egoera are larriagoa bilaka daiteke.

Jarraipen itsu horrek ere badu bere logika. Gaur egun inoiz baino ageriago gelditzen ari da Hegoaldeko lau herrialdeetako bi autonomien burujabetza falta. Mundu mailan gertatzen ari den botere kontzentrazioari eta oldartze neoliberalari, gure ekonomiaren ahultasunak eta marko autonomikoen burujabetza ekonomiko eta politikorik eza gehitu behar zaizkio.

Krisiaren ondorioak, jakina, ez dira soilik sektore publikoan nabaritzen ari. Gure ekonomia dibertsifikatuagoa denez eta Espainiako Estatuan soilik heren bat inguru saltzen denez, krisia apur bat beranduago iritsi da Hego Euskal Herrira. Hala ere, azken hilabeteotan krisiaren gordintasuna ate joka dabil eta 2012rako aurreikuspen guztiak larriak dira oso.


Sozialki eta ekonomikoki ahulenak diren sektoreak jada krisia gogor pairatzen ari dira. Pobretze prozesu etengabearen ondorioz pobrezia tasak gora egin du, Gasteizko eta Iruñeko

Gobernuek babes soziala jasotzeko baldintzak zorrotzen dituzten bitartean. Langabezi tasa gorantz doa hilabetez hilabete, eta ERE kopurua ikaragarria da azpisektore batzuetan. Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago langabezi tasa izugarri handia dela gazteen artean. Paradoxikoki, gaur egungo gazteek gure historiako prestakuntza mailarik altuena dute, baina enplegua lortzea ezinezkoa edo oso zaila zaie.

Atal honetan, azpimarratu nahi dugu oraindik ere menpekotasuna duten pertsonen zainketa eta bizitzaren iraupenerako lana konpondu gabeko kontua direla gure jendaratean. Zainketa lanek garrantzi handiko ekonomia sektorea osatzen dute, eta funtsezkoak dira jendaratearen nahiz gainerako ekonomia sektoreen funtzionamendu egokirako. Hala ere, aitortu eta ordaindu gabeko lana da, oraindik ere ia soilik emakumeek egiten dutena. Jendarte patriarkaleko zeregin eta rol banaketa bidegabe hori areagotu egiten da kapitalismoa krisian sartzen den bakoitzean. Izan ere, “baldintza normaletan” emakumeek lanpostu txartoa go ordainduak eta prekarioagoak dituzte berez, edo ezertxo ere kobratu gabe lan egiten dute, eta krisi garaian ezkutuko ekonomiara “itzultzen” dituzte, zainketa lanetara batez ere.

Alabaina, Hego Euskal Herrian dena ez da negatiboa. Gure ekonomia Espainiako Estatukoa baino dibertsifikatuagoa da oraindik, higiezin burbuilak garrantzi apalagoa du hemen, gazteen prestakuntza maila handia da eta, bereziki, herri txiki honetan garapen propioa eta antolakuntza soziala garrantzi handikoak dira. Bertako garapena bultzatzeko eta babesteko konpromisoa sarritan ikusi dugu, enpresa txiki eta ertainek eta kultura industrialak garrantzi handia izaten jarraitzen dute, ekonomia sozialak eta kooperatibek bezalaxe, eta, borondate politiko apur bat egonez gero, sektore publiko indartsua edukitzeko aukera daukagu oraindik.

Bestalde, krisi ekonomikoaren eta aldaketa politikoen ondorioz, dogma zaharrak erortzen ari dira eta energia sozialak askatu dira. Horrek aukera ematen du bestelako garapen eredu baten inguruan akordio zabalak erdiesteko eta gure herria beste modu batean antolatzeko. Euskal Herrian, gehiengo sozialei eta kontzientziazio nahiz antolakuntza maila handiari esker, posiblea da pertsonak nahiz natur ondasunak neurririk gabe ustiatzen dituen sistema hau uztea eta beste sistema bat sortzea, sistema justu, solidario eta iraunkor bat. Azken finean, gure etorkizun ekonomikoa ez dago ditugun gauzen arabera baldintzatuta, antolatzeko eta bizitza



iraunarazteko daukagun ahalmenaren arabera baizik. Horretarako burujabetza behar dugu, gure nahi eta beharren arabera gure herria eta gure ekonomia antolatzeko.

Gaur egungo egoera politikoan, behar-beharrezkoa da krisi sozioekonomikoaren aurrean alternatiba integral bat formulatzea. Behar hori bera arrazoi nahikoa da ekintza batasun militanterako oinarriak jarriko dituen hitzarmen estrategiko bat erdiesteko. Gaur egun, ezinbes-

tekoa da indar politiko eta sozial ezkertiar eta abertzaleak biltzea eta kohesionatzea, produktu sozialaren birbanatze solidarioa bermatuko duen eredu bat ezartzeko eta, horrela, produktu horren eskuratze murriztaile eta kontrolatu gabearen ondorio traumatikoak eraginkortasunez zuzentzeko.

Alternatiba hori gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da Euskal Herriaren burujabetasunaren bidean jauzi kualitatibo bat egitea. Halaber,

alternatibaren ezarpenak berak jauzi hori egitea ahalbidetuko luke. Hasiera batean, krisi sozioekonomikoari konponbide solidarioa emateko alternatiba horrek erantzun izaera izango luke. Estatuko indar eskuindarrek fronte politiko guztietan abiatu duten ofentsiba sozial eta zentralizatzaile gogorraren aurrean, lehen erresistentzia etapa horrek proiektu subiranista eta ezkertiar bat gauzatu ahal izateko beharrezkoa den kohesio soziala bideratu eta indartuko luke.

2.

PROIEKTU ESTRATEGIKOAREN OINARRIAK

Proposamen zehatzak aurkeztu aurretik, gure herriari eskaini nahi diogun proiektu estrategikoa, gainetik bada ere, marraztu nahiko genuke.

2.1.- EUSKAL HERRI BURUJABEA

Munduko 6.000 herrietatik, 200 inguruk estatua osatu dute. Estatua osatu duten herriak oso ezberdinak dira: batzuk Euskal Herria baino handiagoak dira, beste batzuk txikiagoak; batzuek lurralde zabala hartzen dute, beste batzuek ez; batzuek natur baliabideak dituzte, beste batzuek ez... Mota guztietako estatuak daude, eta denak dira bideragarriak. Horretarako baldintza bakarra burujabea izatea da. Beraz, burujabetza dugu helburu; ezkerretik eta abertzaletasunetik abiatuko den burujabetza.

Gure borrokaren muina ez da soilik identitate eskubideak asetzeko sortua. Horretaz gain, herritarren beharrei erantzuteko tresnak sortzeko borroka da gurea, eta horretarako ezinbestekoa dugu burujabetza.

Burujabetza ezinbestekoa da beste estatu eta herriekin eduki nahi diren harremanak definitzeko, estatuez gaindiko erakundeetan parte hartzeko, aliantzak osatzeko, politika ekono-

mikoak erabakitzeko eta konpartitzeko... Beraz, eskubide osoko eragile moduan nazioarteko esparruan aritzeko oinarria burujabetza politikoa eta ekonomikoa da.

Burujabetzak barne dimentsioa ere badu. Burujabea izatea beharrezkoa da barne antolaketa nolakoa izango den definitzeko eta garapen eredu eta helburuak adostu eta finkatzeko. Azken finean, jendartearen antolakuntza etorkizun ekonomikoa ziurtatzeko baliabiderik garrantzitsua da.

2.2.- EUSKAL HERRI EUSKALDUNA ETA JENDARTE KOHESIOA BILATZEN DUENA

Euskara hizkuntza bizia duen Euskal Herri euskalduna eraiki nahi dugu. Gure helburua nazio bizieta euskaraz artikulatzea da. Euskal hiztun eleanitzez osatutako herria nahi dugu, euskal identitatea eta mundu ikuskera propioa sustatzen eta garatzen dituen eta gure herrian diren gainontzeko identitate eta hizkuntzak errespetatzen eta garatzeko bideak jartzen dakiena.

Bide horretan, pertsonen maila orotako anizta-

suna (kultura, hizkuntza, pentsaera, generoa, klasea, adina, gaitasuna...) zein lekuen berezko izaera (herria, eskualdea, herrialdea) oinarritzat hartuz eta, ondorioz, uniformitateari aurre eginez, beste komunitateen aurrean modu kohesionatuan agertuko den jendarte behar dugu. Euskal Herriak nazio independente eta burujabea izateko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak ditu: gure hizkuntza, historia, ohiturak, balioak...

2.3.- ALTERNATIBA INTEGRALA BEHAR DU EUSKAL HERRIAK

Garapen eredu berriaren xedea

Euskal Herriarentzat bultzatuko dugun garapen eredu berriaren helburua honako hau izango da: jendarte justu bat eraikitzea, gizon-emakumeen eskubide sozialen eta gainerako eskubide guztien berdintasunaren bidez bizitzaren iraupena bermatuko duena, lanaren, boterearen zein ondasunen banaketan oinarritua, Ama Lurrarekin bat eginez. Eredu berri horretan Euskal Herria bere osotasunean kontuan hartuko dugu beti eta, "pentsatu orokorrean, jardun tokian" premisa ardatz na-

gusietako bat izanik, nagusiki eskualdeetan oinarritutako garapen orekatua, deszentralizatua eta dibertsifikatua bultzatuko dugu.

2.4.- ALTERNATIBA ERAIKITZEKO PRINTZIBIOAK ETA HORREN OINARRI DIREN BALOREAK

1.- Printzipio demokratikoen defentsa

Egungo garapen eredia irauli beharra dago. Finantza botereak agindu, politikariek obeditu eta herritarrek ordaintzea da egungo paradigmaren funtsa. Haatik, herritarrengan oinarritua eta herritarrentzat erabakiko den politika da behar duguna, hain zuzen eta helburu horiekin ekonomian eragingo duena.

Estatu demokratikoa eraikitzea, beraz, lehen-tasuna dugu. Horrek, besteak beste, botere banaketa bultzatzea eskatzen du, hau da, demokrazia zuzena, parte-hartze demokrazia eta demokrazia ordezkatzaila konbinatzea.

Beraz, boterea herritar guztien parte-hartze aktibo eta kalitatezkoaren bidez erabili behar da, erabakitze eremu guztietan. Parte-hartze

hori ahalbidetuko duten bideak, egiturak, informazioa eta jendarte eredia behar dira. Halaber, parte-hartzea ez da politikaren eremura mugatu behar, dinamika ekonomiko, sozial eta kultural guztietara zabaldu behar da.

Era berean, koherentziaz eta sendotasunez erantzun behar diegu Euskal Herrian eta Europa osoan gertatzen ari diren aldaketa politiko eta ekonomikoei. Erantzun horietako batzuk Euskal Herria bezalako estaturik gabeko entitateek beren demokratizazio prozesua indartzeko behar dutenari dagozkio; eta beste batzuk gure herrialdeko biztanleen eta lurraldeen autogobernua eta autodeterminazioa bultzatzeko eta indartzeko proposatzen dugun antolakuntza eredu instituzional, politiko eta ekonomikoari.

Gure ustez, erantzunaren parte bat Espainiako eta Frantziako Estatuiekiko independentzia formala eta materiala lortzea izan behar da, Europako Batasunaren barnean Euskal Herriak subiranotasun mailarik handiena izan dezan.

Bestetik, administrazioaren maila ezberdinen arteko konpetentzien banaketa sustatu behar da, ordezkate printzipioa jarraituz. Hau da, arazoaren objektuarekiko hurbilen dagoen autoritateak ahalmena izango du gaia tratatzeko.

Ordezkatze printzipioaren arabera, erabakitze ahalmena gobernu maila guztien artean banatu behar da. Beraz, ordezkate politikoen printzipioak boterea eta erabakiak hartzeko prozedura demokratizatu behar ditu: herritarrengandik hurbilen dauden instituzioek hartu behar dituzte guztion ongizatean eragina duten erabakiak. Gainera, herritarrentzat instituzio horiek dira kontrolatzen errazena. Horixe da herri boterearen eta demokraziaren funtsa: herritarrek instituzio publiko guzti-guztiak kontrolatzea.

Horregatik, sistema publikoak beste norabide bat hartu behar du, eraginkortasun eta efikazia printzipioak bermatuko dituen administrazio publiko bat eraiki behar da, erabakiak hartzeko prozesu guztietan horizontaltasuna, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea oinarri izango dituen. Ildo horretan, udalerriek eta eskualdeek berebiziko garrantzia dute, parte hartzeko biderik zuzenena eta Euskal Herriaren egituratze sozial eta politikoen ardatza direlako. Bertatik bertarako jardunbideak eta tokiko garapen integralak onurak besterik ez dute ekarriko.

Bestetik, botere banaketa eta administrazioaren eraikuntza ezerezean gelditzen dira kontuen berri emateko mekanismo errealak ezartzen ez badira. Administrazioak gardentasuna eskatzen

du, herritarrentzat zein kargu publikoentzat. Diru publikoa arduraz erabili behar da.

Beraz, parte-hartzean oinarritutako eredia dugu helburu, gizabanakoen eta giza taldeen askatasunean, konpromisoan eta erantzukizunean sinesten duen eredu demokratikoa. Jendartearen ekarpenak, proposamenak edota kritikak jasoko dituen eredia; eztabaida sustatu eta horretarako markoak eskainiko dituen. Herritarrei, norbanakoei eta militante sozial nahiz politikoei zabalik egongo diren erabakitze gunez osatutako eredia.

Nolanahi ere, kalitatezko parte-hartzerako ekitate bilatzeak subjektu desberdinen araberako estrategia espezifikoak ezartzera eraman behar gaitu. Berdintasuneko parte-hartze errealak lortzeko prozesuak, egiturak eta bidezko politikak ezarri behar dira. Emakumeen kasua adierazgarria da: bazterketa eta prekarietate ekonomikoa erarik gordinenean jasaten dituztenak izateaz gain, erabakitze guneetatik oso urrun aurkitzen dira, gizonezkoen logikatik pentsatutako ohitura, kultura eta egituren ondorioz. Horregatik, kontuan izan behar dugu emakumeen egoera eta gizonena ez direla simetrikoak eta, beraz, benetako berdintasuna bermatu behar da.

2.- Heziketa prozesu kolektibo eta solidarioa: herritar askeentzako Hezkuntza

Benetako demokraziak eta kontuen berri emateak jendarte antolakuntzan eragin positiboa izan dezaten, heziketa sendo eta integrala behar da. Ardura pertsonal eta kolektiboan, elkartasunean, parte-hartzean eta justizian oinarritutako heziketa prozesua sustatzea ezinbestekoa da.

Heziketa prozesu honek, besteak beste, aipatu oinarrietan sustatutako bestelako bizi eredia bultzatu behar luke, kontsumismo global eta basatiaren aurrean, bestelako kontsumo arduratsu, arrazional eta osasuntsuago bat bilatuz.

Beraz, hezitzailetasuna gauzatzea oinarritzotzat jotzen dugu pertsona aske, autonomo, sortzaile, kritiko, ekintzailez osatutako herri askea lortzeko. Behar-beharrezkoa dugu denbora eta espazio guztietan balore iraultzaileen heziketa bermatzea, ezagutza politiko, soziala eta kulturala landuz.

Era berean, jendarte aktibo eta dinamiko behar dugu, non jendeak, elkarlanean, auzolanean egingo duen lan. Interes pertsonal eta kolektiboaren arteko dikotomiarekin apurtuz, interes kolektiboak norbere interesekin uztartuko dituen

baloreaz ari gara, norbere duintasuna galdu gabe talde baten partaide sentitu eta horrentzat zein etorkizuneko belaunaldientzat lan egiteko prest azalduko dena. Alegia, konpromiso kolektiboa eta auzolanaren garrantzia landu beharreko baloreak ditugu egungo indibidualismo arduragabearen aurrean, norbanakoaren askatasuna eta konpromiso kolektiboa uztartuz.

3.- Betebehar, eskubide eta aukeretan berdinak diren gizon-emakume askez osatutako jendarte

Feminismoaren printzipioetan oinarritu ezean, ez dago benetako aldaketa sozialik; hau da, jendarte patriarkal batean jarraitzen dugun bitartean ez da benetako aldaketarik egongo. Eredu feminista behar dugu, guztientzat eskubide eta aukera berdintasuna bermatuko duena; gizon eta emakume askez osatutako jendarte behar dugu, genero ikuspegia alor guztietan txertatuko duena.

Emakumezkoen eta gizonezkoen artean dagoen egiturazko ezberdintasuna itun sozial berri baten bidez gainditu beharra dago. Itun hori jendarteak oinarri duen marko patriarkalaren zein jendarte garatzen den eremu ezberdinen (soziala, politikoa, ekonomikoa, sinbolikoa) deseraiketarik

abiatu behar da. Itun horrek zera eskatzen du: herria eraikitzeko modua eta herritarron arteko harremanen izaera aldatzea.

Horretarako, ezinbestekoa da lan produktiboa eta erreproduktiboa parekatzea, publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomia faltsua baztertzea eta pertsonen zainketari paper zentrala ematea. Zainketa lanek eredu ekonomiko berriaren funtseko zutabea izan behar dute, sistema publikoak bermatu behar ditu eta haren zerbitzu sareak egin behar ditu.

Bestetik, berdintasuna bermatu behar da sektore guztietan, lanbide espezialitateen aukeraketa sexista baztertuz, emakumeen lan prekaritatearekin bukatuz, ardua postuetara iristeko bidea zabalduz, “lan berdinegatik soldata berdina” printzipioa bermatuz... Gainera, emakumeen lanaldi bikoitzarekin bukatu behar dugu, matxismoaren kontra borrokatuz, gizonezkoek zainketa lanak eta etxeak egiteko benetako ardua har dezaten.

4.- Jendarte plurala

Aniztasuna (jaioterria, kultura, generoa, sinesmenak, pentsaera, adina, gaitasun psikofisikoak, klasea...) errealitatea eta altxorra da

aldi berean. Pertsona guztiak ezberdinak izanik ere, diskriminaziorik edo bazterketarik gabe, bakoitzaren behar zein eskubideen errespetutik abiatuta, aukera berdintasuna bermatu behar da arlo guztietan (elikadura, lana, hezkuntza, aberastasuna, osasuna...). Behar honek aldaketa ekarri behar du, bai arlo politikoan, ekonomikoan, sozialean, kulturean zein pertsonen arteko harremanetan.

lido horretan, gizon eta emakume guztion eskubideen berdintasuna lortze bidean, lan harremanen oinarrian lan banaketa bere zentzu zabalean kokatuko dugu: lan produktiboaren eta erreproduktiboaren arteko banaketa faltsu-interesatua baztertuz, aisiarako denbora zabalduz eta lanerako denbora murriztuz.

Herritar guztiontzat enplegu duina ziurtatzeko helburuak irudimenezko planteamenduak eta proposamen berritzaileak eztabaidatzea eta garatzea eskatuko du, hala nola lanaldi motzagoak bultzatzea enplegua eta lana mantentzeko eta banatzeko.

5.- Justizia sozialaren bidean, aberastasuna banatu

Herritar guztiek aukera, eskubide eta betebe-

har sozial, ekonomiko, kultural, politiko... berberak dituztela bermatuko duen sistema behar dugu, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko, pertsonal eta instituzionalak ziurtatuko dituen. Klase sozialen ezabatzea helburu duen sistemaz ari gara, sexu, arraza, jatorri, adin, gaitasun, sinesmen edo bestelako ezberdintasunengatik sorturiko diskriminazioa errotik moztuko duen sistemaz.

Ekidistantzia edota berdintasun formaletik haratago, norbanakoari dagokiona ziurtatu behar zaio. Horretarako, ondasunaren banaketari ekin behar zaio -gehien duenak ekarpen handiagoa egin dezala-, bai enpresetan (soldata urkilak zehazten) eta bai jendartean (ekitatean eta progresibitatean oinarritutako zerga sistema bultzatuz). Azken honek, ezberdintasunak murrizteaz gain, zerbitzu publiko eta zerbitzu sozialen mantenua ahalbidetzen du. Hau da, ez dugu ahaztu behar sektore publikoa mantentzeko eta garatzeko oinarria ondasunaren banaketa dela.

Berez, ez dago pertsona edo kolektibo pobrerik, pertsona eta kolektibo pobretuak baizik; beraz, justizia sozialetik abiatuta, ondasunen banaketan eta zerbitzuen eskuratzean ekitate printzipioak ezinbestean garatu behar dira.

6.- Eskubide sozialak

Giza Eskubideez hitz egiten denean, sarritan ahaztu egiten dira nabarmenki sozialak diren eskubideak (enplegua, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte segurantza, langabezi prestazioak...), nahiz eta gure jendartean sistematikoki urratzen diren, zuzenean nahiz zeharka, merkaturaren edo bestelako kanpo-eragileen eskutik nahiz eskubide horien oinarritzko babesa bermatzeko gai ez diren administrazioen aldetik.

Urteetako borroka eta lanaren ondorioz eskuratutako eskubide sozialak mantendu eta Iparraldeko Europako herrietan eskaintzen diren zerbitzu sozialak eta eskaintza publikoak ahalbideratzea dugu helburu: osasungintza, hezkuntza, genero berdintasun errealerako politikak, errenta minimoak... Lan eremuan ere eskubide sozialak bermatzeko eta justizia sozialaren bidean urratsak emateko bidezko lan harreman arautu, justu eta orekatuago bat ezinbestekoa da.

7.- Sektore publikoaren lidergoa

Zerbitzu publikoen eskaintzatik harantzago, eredu sozioekonomikoa aldatu nahi badugu epe ertain zein luzeko apustu estrategikoak egin

behar dira. Horri dagokionez, errentagarritasun ekonomikoa eta soziala beti ez datoz bat, honek sektore publikoaren esku hartzea ere eskatzen duelarik. Bestalde, Kutxen izaera eta helburu sozialean oinarrituz bertako ekonomia eta herritarrak lagunduko dituen eta bankuen erregulazio eta kontrol publiko eta sozialerako oinarriak jarriko dituen banku publiko batek ere garrantzi handia hartzen du. Azkenik, badira energia bezalako sektoreak, estrategikoak direnak, urarena den bezalaxe, sektore publikoaren eskaintza ere izan beharko luketenak. Guzti horrengatik sektore publiko indartsu, moderno eta eraginkor baten aldeko hautua egiten dugu.

Zerbitzu publiko eta sozialetara bideratutako aurrekontu-sailak etorkizunerako inbertsioak dira. Sektore publikoan inbertitzea funtsezkoa da jendarte ongizate maila duinak lortzeko, pertsona guztiek mota guztietako zerbitzuak askatasunez, doan eta kalitatez erabiltzeko aukera berdintasuna izan dezaten, lan merkatua dinamizatzeko eta lanpostu egonkorak eta kalitatezkoak sortzeko. Zehazki, inbertsioak egin behar dira osasungintzan, azpiegitura hurbiletan, hezkuntzan, kulturaren, mugikortasun iraunkorrean, etxebizitza publikoan... Inbertsio horiek herritarren bizitza kalitatea hobetuko dute.

8.- Ekonomiaren, jendartearen nahiz ingurumenaren arloan arduratsuak diren eta Ama Lurraren iraunkortasuna bermatzen duten enpresak

Gure herriaren iraunkortasuna, Ama Lurrarena zein euskararena eta euskal kulturarena, bermatuko duen eredu behar dugu. Pertsona, natura eta herrien (ingurunearen) arteko harreman arduratsuak bultzatuko dituen eredu, belaunaldi batek hurrengoari dagozkion baliabideak utziko dizkion bestelako eredu politiko eta ekonomikoa.

Gure herrian era eta jabetza ezberdinetako enpresak daude: multinazionalak, enpresa txiki eta ertainak, kooperatibak, jabetza mistokoak... Jabetzaren nondik norakoaz harantzago, enpresek ekonomiaren, jendartearen nahiz ingurumenaren arloan arduratsuak izatea eta iraunkortasuna bermatzea da garrantzitsuena. Horrengatik, enpresa guztiei baldintza horiek betearazteko mekanismoak ezarriko dira. Halaber, helburu hori lortzeko ezinbestekoa izango da presio sozial eta kolektibo etengabea.

Era berean, enpresa mota ezberdinak egoteak ez du esan nahi berdin baloratzen ditugunik. Enpresen barne demokrazia eta langileen parte-

hartzea, kontrol demokratikorako aukerak edota enpresaren kapitalean langileen partaidetza bera oso kontutan hartu beharreko ezaugarriak dira enpresa mota baloratzeko eta bultzatzeko orduan. Ildo horretan, gure ustez ezinbestekoa da Euskal Herriko biztanleek enpresetan eta administrazioetan hartzen diren erabakien gaineko kontrol sistemak edukitzea.

9.- Garapen dibertsifikatua eta plurala

10.- Ama Lurrarekin bat egiten duen jendarte

Lehen esan dugun bezala, gure herriaren iraunkortasuna, Ama Lurrarena zein euskararena eta euskal kulturarena, bermatuko duen eredia behar dugu; pertsona, natura eta herrien arteko harreman arduratsuak bultzatuko dituen.

Lurrarekin bat egiteko tokiko garapena sustatzea da giltza. Bertako baliabideekin tokiko herriarren beharrezan asebetetzen diren neurrian enplegua sustatzen da, garraiatzen dena gutxitzen da, azpiegitura erraldoiak baztertzen dira, natur baliabideen gestioa arduratsua bul-

tzatzen da eta hondakin kopurua asko murrizten da.

Natur baliabideak ez dira preziorik gabe enpresek edota herritarrek erabili eta narriatu dezaketen funtsa. Aitzitik, eta bere balioa biderkatzailea delarik, zaindu eta errespetatzea gure buruari eta etorkizuneko belaunaldiari egin diezaiekegun mesederik handiena da.

Hiri eta herrien arteko desorekak desagerrararaziz, herri txikien bizitza kontuan hartuz eta Ama Lurra errespetatuz naturarekin orekan bizitzea ahalbidetuko duen lurralde antolaketaz ari gara, besteak beste, zementuan eta azpiegitura makroetan oinarri izango ez duena, garraio publikoa indartuko duena, kontsumo-eredu arrazionala ahalbidetuko duena, energia berriztatzaileen aldeko apustuari bide emango diona, elikadura subiranotasunean bizitzea bermatuko duena, hondakinen kudeaketa arduratsua ziurtatuko duena...

11.- Aniztasunean, elkartasunean eta internazionalismoan oinarritutako jendarte

Euskal Herria anitza eta plurala da. Norberaren

jaioterriaz harantzago, bertan bizi eta lan egiten dugun guztiok osatzen dugu geure herria. Ondorioz, gure arbasoengandik jasotako altxor kulturala oinarri, gure artean bizi diren bestelako herrien kultur aberastasuna aintzat hartu eta uztartzen dakien jendarte eredia behar dugu.

Bide berean, elkartasuna dugu oinarri: hementengoen artean (Gasteiztarren artean, Bermeo eta Larrainekoen artean, Lapurtar eta Zuberotarren artean...) zein hangoekin (Kuba, Senegal, Ingalaterra, Mosku, Sidney edota Karabutakoak). Elkartasun intragenerazionala, zein intergenerazionala. Pertsona eta ama lurraren arteko elkartasuna... Horrela, zaintza, kezka eta enpatia harremanak, maila indibidualean, kolektiboan zein instituzionaletan, ekintzen bidez landuko duen eredia behar dugu.

Askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna benetako sistema demokratikoaren abiaburuak eta xedeak dira. Horregatik, gure iparra izan behar dira Euskal Herriaren egituratze demokratikoan. Gure errealitate plurala oinarritzat hartuz, pertsona eta herri guztien eskubideen errespetua ziurtatuko duen garapen juridiko-politiko bermatu behar dugu. Halaber, ezin ditugu inoiz

bazter utzi aldarrikapen politikoa, ekintza instituzionala eta kontzientziatze lana, horrek indartu beharko baitu une bakoitzean izango dugun testuinguru politiko-administratiboko askatasun sistema. Azkenik, beti ere kontuan izango ditugu giza eskubideen oinarrizko printzipioak, era orekatu eta integralean.

Halaber, harreman menperatzaile inperialisten aurrean geure eredu propioa eraiki behar dugu. Elkartasunezko harreman internazionalistak garatuko dituen jendartea behar dugu, anizta-

sun biologiko-ekologikoaren zentzuan, euskalduntasunetik gizadiaren hizkuntza eta kultur aniztasunari egin ahal diogun ekarpena balioetsiko duena.



3.

BURUJABETZA EKONOMIKOAREN BEHARRAZ

3.1.- EGUNGO MARKOAK ERAKUSTEN DIZKIGUN MUGAK

Bizi dugun krisialdi sakon eta luze honek aukera ezin hobea eskaintzen digu egungo marko instituzionalak Hego Euskal Herrian ezartzen dizkigun mugak aztertzeko. Europar Batasunak, Espainiako Estatuko gobernuak zein EAEko eta Nafarroako gobernu autonomikoek krisialdiari erantzuteko hartutako neurri gehienek norabide argi eta zehatza izan dute: enpresei kostuak murriztea, sektore publikoaren eraispenean aurrera egitea eta jendartean kontsumorako pizgarriak ezartzea. Azken batean, gaur egun indarrean dagoen eredia suspertzera bideratutako neurriak izan dira.

Batetik, esan beharra dugu gaur egun Europar Batasuna kapitalaren zerbitzura dagoen tresna bat dela, kapitalen eta salgaien zirkulazio librea bermatzea lehentasun duena. Printzipio horien aurrean, herrien eta pertsonen eskubideak gutxietsi egiten dira. Hala, esaterako, "austeritate" politikak inposatzen dira, esku hartzeko mehatxuarekin. Politika horien mamia hauxe da: lan harremanak desarautzea, sektore publikoa ezerezean uztea eta, horren ondorioz, enpresa eta finantza se-

ktore handiei eskulan merkeagoa eta mozkin tarte handiagoak eskaintzea.

Bestetik, Espainiako Estatuak erreforma sakonak egin ditu ekonomiaren hainbat arlotan, eta berdin-berdin aplikatu ditu Estatu osoan, Hego Euskal Herriko lurralde bakoitzaren berezitasunak kontuan izan gabe. Zehazki, ez du aintzat hartu gure ehun ekonomikoaren izaera –industriak eraikuntzak baino pisu handiagoa du–, gure finantza eta zerga egoera hobea eta herritarren interesak eta beharrak.

Marko autonomikoaren mugak ikusita, Hegoaldeko zatiketa administratiboaren eragina ezin dugu ahaztu. Lau herrialdeen arteko kohesioa eta elkarlan ekonomiko naturala sustatu baino, administrazio autonomikoen jarrera kontrakoa (CAN edo Banca Civicaren sorrera adibidez) edo utzikeriarena izan da. Aitzitik, ehun produktiboaren osagarritasunak, sinergiek (I+G+B, merkataritza, hezkuntza sistema, internazionalizazio prozesuak, finantza sistema...) eta harremanen indartzeak eskaintzen dituzten aukerak ez dira profitatzen ari.

Zehatzago izatearren, eta azterketa juridiko sakon baten beharra azpimarratuz, jarraian zerrendatzen ditugu ekonomiari lotutako es-

kuduntza-mugei buruzko zertzelada batzuk.

Zerga sistemari eta aurrekontu politikari dagokienez

Foru Aldundiek jasotzen diren zerga guztietatik soilik % 58 jasotzen dute. Horrekin batera transferituta ez dauden kompetenziengatik kupo ordaintzen dugu. Hala ere, zergen ahalmen normatiboa oso mugatuta dago, ordaintzen ditugun zergen % 33ra mugatzen baita. Honi guztiari indarrean dauden harmonizazio irizpideak, presio fiskal orokorra Estatuarenarekin parekatu beharra eta aurrekontuak egiteko zentralizatorako neurriak gehitu behar zaizkio.

Bestetik, aspaldi ez dela Europar Batasunak Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko arau fiskal batzuk indargabetu zituen, eta Espainiako Estatuak nahiz jatorrizko zuzenbide fiskala duten instituzioek ontzat jo zuten erabaki hori. Aurrekari horrek argi erakusten du premiazkoa eta komenigarria dela Nafarroak eta EAEk Europar Batasunarekin harreman zuzenak izatea.

Burujabetza fiskalik ez dugunez, ezinezkoa zaigu aberastasuna benetan birbanatuko duen eta kalitatezko zerbitzu publikoak eskaini ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak lortzea

ahalbidetuko duen zerga eta aurrekontu politika bat aplikatzea.

Lan harremani eta babes sozialeko sistemari dagokionez

Lan harremanen esparruan ez daukagu inolako eskumenik, eta horrek Espainiako Estatuan dagoen behin-behineko lana eta prekarizazio maila altuetara eraman du Hego Euskal Herria ere.

Aipatu behar da soldatek erosteko ahalmen handia galdu dutela azken hamarkadetan. Lan harremanak erabat desarautzen dituen lan erreforma berriak aipamen berezia merezi du, gure negoziazio kolektibo ereduaren sekulako eragin kaltegarria izango duelako, beste ondorio larri batzuen artean.

Babes sozialari dagokionez, Gizarte Segurantzaren sistema erabat zentralizatua dago eta gure instituzioek pobrezia aurkako neurri osagarriak hartzeko egiturazko mugak dituzte. Gainera, babes sistemaren zatiketak eraginkortasun falta dakar, instituzio ezberdinen esku baitaude eskuduntza ezberdinak. Horrek guztiak indarrean dagoen babes sozialerako sistema nahikoa ez izatea eta Europako sistema aurrerakoienetatik urrun egotea dakar.

Hezkuntza sistemari dagokionez

Hezkuntza arautuari dagokionez, Madriletik bideratutako lege organikoen bitartez, autonomia estatutuek jasotzen dituzten eskumenak ia kudeaketa hutsaren arlora murriztu dituzte. Bestalde, lege organiko horiek ez daude euskal errealitate egokituta eta sarritan haren atzetik doaz.

Hezkuntza ez arautuari dagokionez, lanerako eta etengabeko prestakuntzarako fondoak Gizarte Segurantzaren funtsetatik ateratzen direnez, prestakuntza-politika zentralizatuta dago. Horrela ukatu eta eragotzi izan da prestakuntza-plan propioak egin ahal izatea (HOBETUekin gertatutakoa da horren adibide garbia).

Berrikuntza sistemari dagokionez

I+G+B sistemaren oztopoak eta ahultasunak neurri batean teknologi eskuduntzak luzaroan transferitu ez izatearen aldetik datoz. Horrek suposatu dituen diru iturrien galeraz (800 milioi euro EAEn 90eko hamarkadan) eta bikoiztasunez gain, oinarritzko ikerketa zientifikoan gastu publikoaren ahultasunean isla du. Esate baterako, Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Gorenak (CSIC) hiru zentro baino ez du Hego Euskal Herrian, Andaluzian berriz 23 eta Madrilan 44.

Lurralde artikulazioari dagokionez

Esparru honetan Estatutuak agintzen zituen eskumenak balio gabeak bilakatu dira Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren hainbat sententzia dela medio, eta, beste arlo askotan bezala, zentralizazio prozesua eman da. Kudeaketa integrala egiteko aukerarik gabe eta lurralde zatiketaren ondorioz, koherentziarik gabeko barne garraio sistema dugu. Zentzu honetan aipagarria da aireportu eta portuen egoera, kudeaketa zentralizatua- ren menpe beraien eraginkortasuna erabat mugatuta dutenak.

Finantza sistemari dagokionez

Autonomia estatutuek ez diete Hego Euskal Herriko administrazioei beraien esparruko aseguru-etxeak, kutxak eta eskualdeko bankuak baimendu, arautu eta ikuskatzeko eskumenik eman. Gehienez aurrezki-kutxa eta aurrezki-kooperatiben informazio- eta ikuskapen-sistema paraleloa eta bikoiztua garatu izan da, eta bertako Kutxen Legeak Estatu mailako legeditik beste eredu baterantz ezberdintzeko margen eskasa erakusten du. Are txikiagoa une honetan, sistema osoa erreformatzen ari denean, kutxen fusioak eta bankarizazio prozesuak eraginez.

Honekin batera, lurralde banaketak lau euskal aurrezki kutxen elkarlana ahultzen du, kutxen bateratze garaian ikusi den bezala. Gainera, baloreen merkatuak arautzeko eta beraien operadoreak sortzeko aukerak desagerrarazi ziren Baloreen Merkatuari buruzko legearen bitartez.

Planteatuta dagoen bezala, finantza erreforma politika ekonomiko berriaren oinarrietako bat da (lan erreformarekin eta administrazio publikoen gastua murrizteko politikarekin batera). Izan ere, bigarren fase batean aplikazio metodo are zorrotzagoak erabiliz, politika ekonomiko berri horren helburua hauxe da: lanaren errentak mugimendu espekulatiboetara era masiboan bideratzen jarraitzea, dagoeneko biztanleria piramideko geruzarik zabalenen zorpetze mugara iritsi den arren. Horrek kontsumoan eta ekonomia produktiboan eragingo duen beheraldia aldeztatik iragarrita dago.

Produktzio sektoreak arautzeari eta planifikatzeari dagokienez

Hego Euskal Herrian kokatuta zegoen Estatuko sektore publiko enpresarialean (INI hasieran eta gero SEPIren esku) administrazio autonomikoen parte-hartze koordinatua aurreikusia zegoen arren, ezereen hutsean geratu da. Ho-

rrera, adibidez, 80ko hamarkadan emandako birmoldaketa prozesuetan administrazio autonomikoen ezin izan zuten parte hartu.

Sareko industriak (adibidez, energiakoak eta telekomunikazioetakoak) Energia Batzorde Nazionala (CNE) eta Telekomunikazioen Merkatuko Batzorde Nazionala (CNMT) erakunde independenteen bidez arautzen dira eta horietan administrazio autonomikoen ez dute parte hartzen. Bestalde, Hego Euskal Herriari dagokionez, energia eta telekomunikazioen lege bidezko arauketa Estatuaren esku dago, eta horrek eredu energetikoan edo energia berriztagarrien bultzadan eskumenik ez izatera garamatza.

3.2.- ZERTARAKO DUGU MARKO INSTITUZIONAL BERRI BATEN BEHARRA?

Herri honen gehiengo batek onartzen du indarrean dauden Autonomia Estatutuen eredu agortuta dagoela, bai beraien diseinuko mugengatik, bai kompetentzien transferentzietan egon den murrizketengatik, bai inboluzio autonomikoagatik, bai gaur ekonomiak erakusten dituen erronkek tresna berriak es-

kuratzea eskatzen dutelako.

Marko instituzional eta tresna berriak behar ditugu besteak beste helburu hauek lortze aldera:

- Herritarren ongizatea hobetuko duten babes sozialerako sistema unibertsal baten eta lan harremanen espazio baten bitartez, eredu sozial eta ekonomiko berri bat eraikitzeko, justua, demokratikoa eta solidarioa, non ekonomiak herritarren giza garapen iraunkorra izango duen helburu.

- Herri honetako eskualdeen arteko kohezio soziala eta ekonomikoa sendotzeko eta artikulatzeko, elkarlanaren bitartez sinergiak eta irabazi endogenoak aktibatuz.

- Politika fiskaleko eredu berri bat eraikitzeko, orekatua, modernoa eta solidarioa, honako ezaugarri hauek izango dituena: zerbitzu publiko eta sozialen bideragarritasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren diru sarrerak bermatzea, benetako progresibitatearen printzipioan oinarritzea, iruzurraren aurka borrokatzeko konpromiso eraginkorra hartzea, elkertasunaren printzipioa gauzatuz aberastasunaren birbanaketa ahalbidetzea eta Europako jendarterik aurreratuenak erreferentziazat hartzea.

- Gure sare produktiboak datozkigun erronkei aurre egiteko (krisi ekonomikoa, krisi energetikoa...) eta munduan eta sektore bakoitzean produktibitate eta balio erantsi altuko mailatan hobeki kokatu ahal izateko, jendarte onura bilatzen duten I+G+B politikak bultzatuz.
- European ahotsa izateko (ECOFINen, esaterako), gure lurraldeen egitura fiskal propioa kontuan hartuz.
- Lan eta bizi baldintza duinak bermatuko dituen lan harremanen eta babes sozialeko esparru propio bat garatzeko.
- Araudien betetze hutsetik haratago gure sare produktiboan hau guztia bermatzeko: ardura soziala, lurraldearekiko lotura, osasuna eta ingurumenarekiko errespetua, genero berdintasuna, demokrazia ekonomikoa eta jendarte ongizatearen aldeko zerbitzuak.
- Autonomia politikoa eta nahikotasun finantzarioa bermatuko dituen benetako udal autonomia lortzeko.
- Jendarte kohesioa, genero berdintasuna, diskriminazioen ezabaketa, ingurugi-

roaren zainketa, pertsonen arteko harremanen sendotzea, munduko beste herritar eta herriekiko errespetua eta elkartasuna, benetako aukera berdintasuna, lanaren eta aberastasunaren banaketa esparru guztietan, pobrezia-
ren desagerpena, gizabanakoen zorientasuna, lan eta bizitza maila duina eta gizabanakoen ahalmen guztien garapena era iraunkorren bilatuko duen eredia era demokratikoan eraikitzeke.

Herri Eskubideen bidea jorratu nahi dugu, he-
lburu guzti horiek lortzeko behar ditugun tresna, ahalmen eta burujabetza nahikoa eskuratu ahal izateko.

3.3.- INDEPENDENTZIA POLITIKO ETA INSTITUZIONALAZ

Independentziaren hautua gure nazioaren, gure herriaren eta gure kulturaren biziraupena bermatzeko eta nazio honetako biztanleen ongizatea eta bizitza kalitatea hobetzeko egiten dugu.

Horren harira, krisi honek erakusten digu independentziaren egitasmoa ezinbestekoagoa dugula, gure ekonomia eta jendartearen eredu

berri batera eramateko beharrezkoak ditugun tresna propioak lortu eta garatzea ahalbide-tzen digulako. Hortaz, Euskal Herriak ez du etsitzen estatuen inposaketan aurrean ezta merkatuen aurrean ere.

Horregatik, herri gisa dagokigun autodeter-
minazio eskubidea aldarrikatzen dugu eta Nazio gisa burujabetza osoa eskatzen dugu. Herritar burujabez osatutako nazioa izan nahi dugu, askatasun zibiletan eta eskubide eko-
nomiko eta sozialetan islatuko den burujabe-
tza nahi dugu. Hala ere, Euskal Herriko gizon-
emakumeok erabateko burujabetza indibidual eta kolektiboa lortzeko bide bakarra dago: bere baitan ekoizpen harreman berriak, bo-
tere harreman berriak eta kultura nahiz bizi-
modu berriak bilduko dituen eredu sozioeko-
nomiko berri bat eraikitzea.

Euskal Herriko jendartearen gehiengoa prest dago merkatuen eta kapitalaren inposizioei aurre egiteko eta langileriaren eskubideak defendatzeko. Gehiengo horrek eredu sozioeko-
nomiko demokratikoa, justua eta solidarioa nahi du. Horixe da gure indarrik handiena: erabateko burujabetza lortuz jendarte eredu berri bat artikulatzen joateko baldintza objektiboak eta subjektiboak ditugu.

4.

EUSKAL HERRIKO
EREDU EKONOMIKO
ETA SOZIAL BERRIA.
JARDUN-EREMUAK ETA
PROPOSAMENAK

Gaur egungo egoerak Euskal Herrian urgen-tziazko neurriak hartzea eskatzen du, beste eredu sozioproduktibo baterantz urratsak egi-tea ahalbidetuko diguten oinarriak jartzeko.

Planetaren mugak errespetatuko dituen garapen endogenoaren aldeko apustua

Garapen endogenoa sustatuko duen ere-dua behar dugu. Lurralde bateko eta bertako biztanleriaren barne ahalmenak indartuko di-tuen garapen eredu, ekoizpen eta kontsumo ehuna (kate interdependenteak) sortuko due-na. Eredu horren bidez lortu beharreko he-lburu batzuk ekoizpen soziala handitzea eta desberdintasunak zuzentzea dira, planetako baliabideen eta isurguneen mugak errespe-tatuz. Ekoizpen soziala ez da ekoizpen mate-rialera mugatzen, kultur ekoizpena eta komu-nitate baten jardun kolektiboa osatzen duten jendarte harremanak ere biltzen ditu.

Garapen endogenoak instituzioak garatzea eta herrialdea nazioartean txertatzea eskatzen du. Euskal Herrian, ekonomia irekia du-gunez, garrantzi handikoa da ekoizpenerako ahalmenak eta gaitasunak garatzea ekono-miaren garapen harmoniko eta orekatu baten baitan.

Sortu nahi dugun eredu berrian lehenetasuna emango zaio tokian tokiko ekoizpenari, ekoiz-pen hurbilari, energia, garraioa eta materialak aurrezten dituen ekoizpen ekologikoari. Behar ditugun ondasunak ekoizteko orduan, kontuan izan behar dugu diruz baloratu ahal diren ba-liabideen urritasuna, orain arte bezala, baina naturak ematen dizkigun baliabideak ere mu-gatuak direla jakinik. Baina, batez ere, ekoizpen berriaren aurrean enpleguaren eta aberasta-sunaren banaketa lehenetsiko duen eredu bat nahi dugu.

Garapen endogeno iraunkorrean herritarren, lurraldearen eta Estatuaren arteko loturak hainbat arlo barnebiltzen ditu, hala nola pro-duktiboa eta erreproduktiboa, berrikuntza eta hezkuntzarena, soziala, instituzionala...

Arlo horiek guztiak elkarri lotuta daude, nola-baiteko intentsitateko "sareak" osatuz. Horrela, komunitatearen garapena sendotzen duen kul-tura komunitario bat hedatzen da. Eredu ho-rretan, herritarren inplikazio eta parte-hartze handia dago hala bizitza produktiboan nola he-rritarren bizitzako esparru guztietan. Endoge-notasuna eta parte-hartzea jendartearentzako ongizatea definitzeko prozesu berrien motor bi-hurtzen dira.

Beraz, garapen endogenoak ondorio ekono-mikoak, instituzionalak, kulturalak, politikoak eta sozialak ditu. Ikuspegi horretatik, behar-beharrezkoa da herritarrek komunitatearen jardunean eta jendartearen eraikuntzan parte hartzea. Garapen endogenoan, jendartearen ezinbesteko parte-hartzea eta behetik egin be-harreko planifikazioa uztartu behar dira, biak kontuan hartuz.

4.1.- KRISI EKONOMIKOARI AURRE: INBERTSIORIK ONENA, EUSKAL HERRIA

Eredu ekonomiko justu, demokratiko eta solidario baterantz.

A – SEKTORE PRODUKTIBOAK

1.- Eredu produktiboa: EUSKAL HE-RRIKO EHUN PRODUKTIBOAN INBER-TITZEA

Lehenetasun publiko nahiz pribatua ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean inbertitzea izan behar da. Euskal Herriko ehun produktiboaren gara-pena eta eraldaketa lehenetsi eta Euskal He-

rriko lurralde guztien arteko bertebrazioak eta hitzarmenek sortuko lituzketen sinergia lagungarriak bultzatu behar dira.

Sektore publikoa izan behar da apustu honen motorra, nahiz eta sektore pribatuak, kooperatibek... ere beren tokia izango duten. Horretarako, sektore publikoak honako ezaugarri hauek izan behar ditu: ekoizpenean zuzenean inbertitzea, lurraldearen kudeaketa ingurumenaren babeslea eta sozialki eraginkorra izatea, aberastasuna birbanatzeko politika zehaztea eta sektore pribatuari etekin gehienak produkzioan inbertitzeko eta langileen bizi eta lan baldintzak hobetzeko neurriak ezartzea exijitzea. Halaber, sektore publikoak zainketa zerbitzuak sortu behar ditu, eta zerbitzu horiek gure ekonomiaren zutabe nagusietako bat izan behar dira.

Euskal Herriko ehun produktiboan inbertitzean, honako helburu hauek lortu behar dira: berrikuntza, dibertsifikazioa, sektoreen arteko oreka, ingurumenaren babesa eta gure ekonomiako sektore estrategikoen defentsa.

Horri dagokionez, azpimarratu nahi dugu sektoreen arteko oreka egonkortasun estrategia gisa planteatzen dugula. Izan ere, oreka horrek tertziarizazio prekariora eragotziko du eta in-

gurumena errespetatuko duen garapen endogeno eta orekatua bermatuko du. Ingurumena zaintzen duen industria moderno, iraunkor eta kalitateari dagokionez lehiakorra sustatu nahi dugu. Lehen sektorea bultzatu eta suspertu nahi dugu, garrantzi handikoa baita jendartearen, ingurumenaren, komunitatearen eta ekonomiaren ikuspegitik.

Horren guztiaren helburua Euskal Herriko gizon-emakumeentzat aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzea eta hurrengo belaundientzat etorkizun duina bermatzea da.

2.- Lehen sektorea

Lehen sektoreak berebiziko garrantzia dauka ekonomikoki independentea izan nahi duen herri batentzat, are gehiago mundu mailako elikagai krisi baten aurrean gaudenean. Azken hamarkadetan, ordea, industrian, zerbitzuetan edota turismoan oinarritutako eredu ekonomikoaren aldeko apustu soilak egin dute instituzioek, Euskal Herriko lurralde askotan indar handia izan duen lehen sektorearen kalterako. Nekazaritza jarduerarako erabiltzen diren lur sailak etengabe txikitzen ari dira, eta nekazaritzak ia-ia desagertzeko bidea hartu du, garatutako politiken ondorioz arrantzarekin gerta-

tu den bezala. Bilakaera negatibo horri buelta ematea ezinbesteko erronka da guretzat.

Azpimarragarria da, gainera, une honetan bai EAEko zein Nafarroako nekazaritzaren kanpo balantzak negatiboak direla. Nafarroaren kasuan zertxobait handiagoa bada ere, oro har askoz ere gehiago da nekazaritzaren zein elikagaien alorrean inportatzen duguna esportatzen duguna baino.

lido horretan eta ekonomia subiranotasuna zein elikadura eredu burujabe eta osasuntsua bermatu bidean, lehen sektorea estrategikotzat hartu behar dugu. Nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza eredu sendoak behar ditugu. Sektorearen iraunkortasuna bermatu beharra dugu, aniztasunaren eta biodibertsitatearen galerarik gabeko natura-ustiapena bultzatuz, ekoizpen ekologikoa sustatuz, genetikoki manipulaturako elikagaien ekoizpena eta erabilera baztertuz (gizaki zein animalientzat), lurra kaltetzen duten produktu kimikoak ahal beste murriztuko duen nekazaritza iraunkorra bermatuz eta arrantza zein abeltzaintzaren iraunkortasuna ziurtatuko duten politikak abian jarriz, horretarako beharrezkoak diren bitarteko publikoak ziurtatuko direla, I+G+Bkoak barne. Alegia, beharrezkoak diren neurri eta babes politikoak ar-

tikulatu behar dira, elikadura burujabetza lortu eta nekazari eta abeltzainak beren lanetik bizi daitezen, beste edozein langile bezala.

Badago nekazaritza industrialak bertoko elikadura ziurtatu dezakeela sinesten duenik. Gure ustez, horrelakoak baztertu behar dira. Nekazaritza industrial eta intentsiboa kaltegarria da, bai laborari gehienentzat, bai naturarentzat, eta baita kalitatezko elikadura osasuntsuarentzat, berdin maila lokalean zein mundu mailan. Laborantza eredu horrek suposatzen duen ekoizpena, gero eta laborari gutxiagoren eskuetara mugatuz, baserri mundua deseiguratzen du; gero eta kapital eta kontsumo bitartekari deitzen diren ongailu, pestizida eta energia mobilizatuz, naturari gero eta gehiago eskatzen dio: ura, energia fosila, kutsadura. Herrialdeak ekoizpen sail jakin batzuetan espezializatzen ditu, monolaborantza eta lekuko lurrarekin zerikusirik ez duen hazkuntza moduak bultzatuz. Horrela, herrialdeak ekoizten ez dituen beste sailekiko menpekotasuna sortzen da.

Bide horretan, nekazaritza eta abelzaintza industrial eta intentsiboa elikadura burujabetzan oinarritutako nekazaritza eta abelzaintzarako bidean jarri behar dugu. Izan ere, laborantza eredu horrek dituen balio erantsiak handiak baitira:

elikagai anitz, sano eta kalitatezkoen hornitzailea izatea, elikadura-alarmaak saihestuz; nekazaritzan jende gehiagok lan egin dezan laguntzea; nekazari ekonomia, ekonomia birkokatu eta iraunkor berriaren motorra izatea, mugimendu espekulatu eta finantzarien gaintik; agroekologikoki ekoiztutako elikagaien hornitzailea izatea, Ama Lurraren osasuna ziurtatzeko; erakundeen arteko aliantzak garatu eta indartzeaz gain, nekazari eta hiritarren arteko loturak sortzea; nekazarien ezagutza eta biztanleria guztiaren elikadura-kultura berreskuratzea; planeta "hozten" laguntzea; planeta aberatsa, animalia eta landare espezieen biodibertsitatea duena.

Arrantzari dagokionez, ezagunak dira itsasoaren gain-ustiaketa baliabideetan eragin dituen sarriak eta horren ondorioz ezarritako kuotek gure flotan eragin dituzten errentagarritasun arazoak. Horrekin batera, arrantzale profesionalen eskasia eta arrantzale profesionalak prestatzeko formazio planik eza nabarmenak dira; halaber, langileriaren lan baldintzek erreleboak ziurtatzea eragozten dute, eta gazteria arrantza mundutik aldendu.

Horietaz gain, arrain inportazio erraldoiek bertoko produktuaren kontsumoari eragiten dioten kalteak izugarriak dira. Eta, kalitatezko produk-

tua izanik, horren komertzializaziorako produktuen dibertsifikazioa, egitura komertzialak eta merkatuari egokitzeko plan faltak egoera larriagotzen dute. Honi guztiari produkzio kostuen igoera izugarria erantsi behar zaio, erregaiena, batez ere. Eta hori gutxi balitz, aisialdi arrantzaren kompetentzia eragin handia izaten ari da sektorean.

Horren guztiaren aurrean, biodibertsitatea errespetatuz, baliabideak zaindu eta horien iraunkortasuna ziurtatu behar dugu, zero bazterkin politikari helduz; horretarako, gure flota arrantza selektiboa egitera bultzatu behar dugu, horretarako tresneria eta baliabide egokiak ziurtatuz eta kuotak arrazionalki banatuz eta kudeatuz. Aipatu dugun guztiari dagokionez, eta beste arrantzale batzuekin aukera berdintasunean lan egin ahal izateko, garrantzitsua da nazioarteko erakundeetan ahotsa eta ordezkaritza edukitzea eta gainerako herrialdeekin harremanak izatea, besteak beste herrien arteko elkartasuna eta biodibertsitatea zaintzen duen arrantza defendatuz.

Langileria sektorera erakarriko duen formazio eta lan baldintza egokiak bermatu behar dira eta gure produktuei balio erantsia emango dioten komertzializaziorako bide eta egitura berriak ireki.

Euskal Herriko lehen sektoreak biztanleriaren oinarriko elikadura-beharrak asetzea bilatu behar du. Bertoko baratze, mendi, itsaso eta ibaietan ekoitzi, hazi edota harrapatutako elikagaiek izan beharko lukete gure elikaduraren oinarri, horrela beste herrialdeekiko elikadura burujabetza bermatuz eta honek berak natura-erikiko dituen ondorio positiboak ahalbideratuz.

Elikadura ereduak honako irizpide hauei jarraituko die: gertutasuna, harreman pertsonala, auzolana eta ekoizpen garbia. Ekoizle, merkantari eta kontsumitzaile zikloa ahalik eta motzena izan behar da, honek zera bermatzen baitu: kontsumitzaileak jaten duenaren gaineko kontrol handiagoa edukitzea, garraioaren energia-gastuak ekiditea, ekoizlearentzako prezio hobeak, produktuaren kalitate handiagoa (kimika gutxiago, produktu freskoak...), ekoizpenaren eta kontsumoaren artean denbora gutxiago pasatzea.

Beste abantaila askoren artean, elikadura eredu horrek lanpostuak sortu, gure beharrak ase eta kalitate handiko elikagai osasuntsuak bermatzen ditu. Gainera, distantzia luzeko garraioaren energia gastuak, CO2 isurketak, sustantzia kontserbatzaileen erabilera estentsiboak eta herrialde “azpigaratuetan” transnazionalen

eskutik datozen ekoizpen intentsiboak dakarren suntsiketa eta nekazarien esplotazioa saihesten ditu, besteak beste.

3.-Bigarren sektorea: Eredu industrial

Euskal Herriko industri ehunaren bertebrazioa

Gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da industri sektorea bultzatzea, elkartasuna, ekitate soziala eta irizpide ideologikoak oinarritzat harturik eta helburua industri sektorea sendotzea, iraunaraztea eta biziberritzea izanik. Kultura industrial eta zientifikoa suspertu behar dira, industriaren garapenak berebiziko garrantzia baitu gure herriaren etorkizun ekonomiko eta sozialerako.

Industrien arteko “sare” harremanak bultzatu behar dira, ekoizpen fluxuen koherentzia eta dentsitatea areagotuz. Halaber, eraginkortasunarekin bateragarriak diren ekoizpen harreman “kooperatiboak” areagotu behar dira. Dinamika horretan beste eragile batzuk ere beharrezkoak dira, hala nola instituzioak (udalak, diputazioak eta Iruñeko nahiz Gasteizko gobernuak), indar sozialak (sindikatuak eta patronalak) eta beste erakunde batzuk (unibertsitatea,

zentro teknologikoak eta prestakuntza sistema). Eragile horiek guztiek industri ehuna bertebratzen lagundu behar dute. Horrela, enpresa txiki eta ertain askoren garapena eta modernizazioa bultzatuko dira. Industria “helduak” (siderometalurgiako azpisektoreak, adibidez) zientziaren eta teknologiaren arloko berrikuntzetara egokitu behar dira. Gauza bera esan daiteke papergintzaz, eraikuntzaz, itsasontzien konponketaz eta beste zenbait sektorez.

Bestetik, makina-erremintak, matizegintzak, trokelgintzak eta horrelako jarduerak ekonomia-aren garapen etengabea bermatzen dute. Azpisektore horien inguruan enpresa asko mugitzen dira, eragiten duten efektu induzituaren ondorioz: merkatu kuota bat eskuratzen dute, esportazioek garrantzi handia dute, lanpostu asko sortzen dituzte eta fakturazio handiak egiten dituzte.

Nolanahi ere, oso kezkarriak diren faktore batzuk ere hartu behar ditugu kontuan:

- Gaur egun, Euskal Herriko ehun produktiboko maila teknologikoa baxua edo ertain-baxua da. Horren ondorioz, azpisektore horietako enpresak prezioen bidez soilik lehiatu ahal dira, soldata urriak ordaintzen dituzten herrialdeetako produktuekin nagusiki.

- Energia kontsumoari dagokionez, Euskal Herriko industria intentsiboa da. Euskal Herriko ekoizpen industrialaren % 50 gutxienez oso intentsiboa da energia kontsumoan.

- Siderometalurgia, papergintza, zementugintza eta beste azpisektore batzuk kutsatzai-leak dira oraindik, eta hori eragozpen handia da bilatzen dugun garapen eredurako.

Hori guztia ikusirik, ekoizpenaren dibertsifikazioa areagotu egin behar da. Batetik, enpresen arloko azpisektore batzuk birplanteatu behar dira; bestetik, horrekin batera, enpresen arloko azpisektore batzuk birplanteatu behar dira; bestetik, horrekin batera, enpresen arloko azpisektore batzuk birplanteatu behar dira; bestetik, horrekin batera, enpresen arloko azpisektore batzuk birplanteatu behar dira, hala nanoteknologiaren, bioteknologiaren eta horrelako azpisektoreen arloan nola “enpresentzako zerbitzu aurreratuen” arloan (ingeniaritzak, aholkularitzak...).

Halaber, eremu horretako beste desoreka nabari bat lurraldeari dagokiona da. Industriaren kasuan, lurraldeen arteko oreka handiagoa lortzeko, deszentralizazioaren aldeko apustu argia egin eta jarduerak sustatu behar dira Euskal Herriko eskualde guztietan. Nafarroari dagokionez, jarduerak industrialak multinazional gutxi batzuen eskuetan biltzeak etorkizunera begira dakarren arriskua nabarmendu nahi dugu.

Industri politika aktiboa sustatzea

Gaur egungo politika liberalak eta industriaren sektorean dauden desorekak kontuan izanik, garrantzi handikoa da sektore jakin batzuetan izaera estrategikoko esku-hartze publikoa sustatzea eta esku-hartze estrategiko hori indartuko duten neurri osagarriak hartzea. Kapital publiko eta pribatuak artikulatu behar dira industriaren arteko harremanak hobetzeko, enpresa estrategia pribatu eta publikoen osagarri.

Horrek siderometalurgia eta ontzizaintza bezalako sektore tradizionalak eragiten die, baina kontuan hartu behar dira eduki teknologiko handia eta merkatu gero eta zabalagoak dituzten sektore berriak (aeronautika, biomedikuntza, nanoteknologiak...) –baldin eta jendarte onura handitzen bada- eta inbertsio pribatuak iristen ez diren sektoreak ere. Partaidetza publikoa hainbat eratakoa izan daiteke eta izan behar da, partaidetza maioritariotik hasi eta gutxienez % 30eko partaidetzaraino. Partaidetza horiek enpresa estrategia pribatuak baldintzatzen dituzte eta epe luzeko industri garapena sustatzen dute, Euskal Herriko enpresen nazioartekotze dinamika kontuan hartuz.

Hori guztia kontuan izanik, gure helburua in-

dustriaren arloko enpresa publiko eta erdi-publikoak sustatzea da, honako sektore hauetan: bioindustria (ingeniaritza genetikoak, ikerkuntza biomedikoa), energia berriztagarriak eta “hiri-ingeniaritza” (onura publikoko elementuen tratamendua eta banaketa, hala nola ura, gasa, elektrizitatea, eskolak...).

Bestetik, Euskal Herriko enpresen garapen zientifiko-teknologikoa sustatu behar da. Horretarako, besteak beste, honako neurri hauek hartu beharko lirake: berrikuntzaren arloko politika publikoak aldatzea, unibertsitateko ikerkuntza teknologikoa berregituratzea eta teknologia zentroen kudeaketa ahalmena oinarrizko esparru aplikatuen ikerkuntza teknologikoa bultzatzeko baliatzea. Beraz, teknologia zentroei ikerkuntza lan hori egin ahal izateko beharrezkoak diren baliabide publiko guztiak eman behar zaizkie, edo, horrez gain, helburu horretarako ikerkuntza zentro espezifikoak sortu beharko lirake. Horretarako, I+G+Brako inbertsioak areagotu beharko lirake, ondo artikulatutako beste neurri batzuen artean. Kontuan izan behar dugu gure lurraldeek ezaugarri espezifikoak dituen Europako eskualde bat osatzen dutela eta, beraz, Europako industria eskualde homologoekin alderatu behar dela. Jokabide bera izan beharko genuke patente

kopuruari dagokionez, beti ere haien helburu soziala kontuan izanik.

Horri dagokionez, bi neurri zehatz proposatu nahi ditugu. Oso beharrezkoak eta garrantzitsuak direnez, laburki azalduko ditugu.

Inbertsiorako eta enplegua sortzeko egiturazko funts bat sortzea

Ekoizpen eredu propio bateranzko bidea egitea ahalbidetuko duen egiturazko inbertsio funts bat sortu nahi dugu. Gaur egun, Euskal Herriko ekoizpen eredia zaharkituta dago, eta mantendu ahal izateko etengabe murriztu behar dira langile klasearen lan baldintzak. Horregatik, hala produktuei nola pertsoneri balio erantsi handiagoa emango dien beste ekoizpen eredu batera jo behar dugu. Bide hori egiteko, alderdietatik guztiz independentea izango litzatekeen egiturazko funts bat sortzea planteatzen dugu.

Funts hori parte-hartze instituzionaletik, ekonomikotik eta sindikaletik kudeatuko litzateke, bere jardueretan ebaluagarria eta gardena izango litzateke, eta politika ekonomikoaren planifikazio publiko eta sozialetik gidatuko litzateke.

Funts horren bidez honakoa lortuko genuke,

besteak beste: I+G+B arloko baliabide publikoak optimizatzea, inbertsio produktiboa sustatzea, energia aurrezte, lanbide prestakuntza hobetzea eta lan merkatuan sartzeko zailtasunik handienak dituzten kolektiboak merkatu horretatik kanpo geratuko ez direla bermatzea. Beraz, funts publiko horrek instituzio guztiek garatzen dituzten programa ugariak koordinatu beharko litzuzke.

Funts horretako baliabide ekonomikoak hainbat finantzaketa iturritatik lortuko lirateke:

- Gaur egun berrikuntzaren arloan Espainiako Estatuak gure ordeztu kudeatzen dituen funtsen kudeaketa.
- Ekonomiaren sustapenerako, berrikuntzarako eta enplegurako Europako funtsen kudeaketa zuzena.
- Gaur egun I+G+Bn inbertitzen duten instituzioen ekarpenak, arlo horretan dagoen dispersioa gainditzeko eta eraginkortasuna lortzeko.
- Gaur egungo Kutxabank-en eta horrelako entitateen inplikazioa. Batetik, kreditua sozializatuz gure garapen ekonomiko eta soziala

sustatu beharko lukete. Bestetik, funts propioen parte bat egiturazko funtsa hornitzeko erabili beharko lukete.

Zaintza teknologiko eta adimen zerbitzua

Halaber, gure ekonomia berritzen eta hobetzen laguntzeko asmoz, zaintza teknologiko eta adimen zerbitzu bat abian jartzea proposatzen dugu. Euskal Herriko enpresa txiki eta ertainei laguntza teknologiko eta enpresariala emango liekeen zerbitzu publiko/erdipublikoa izango litzateke, honako helburu hauek izango litzuzkeena:

- Enpresa txiki eta ertainak informazioa lanabes estrategiko gisa erabiltzeak daukan garrantziaz sentsibilizatzea.
- Eragile adituen parte hartzearekin informazio estrategikoaren arloko arazoak konpon-tzen lagunduko lukeen balio sare gisa jokatzea.
- Informazio beharren arloan enpresek egiten dituzten kontsulta puntualei erantzun adituak ematea.
- Enpresa txiki eta ertainen neurriko Informazio Estrategikoko Zerbitzuak diagnostikatzea eta ezartzea, enpresei funtsezkoak diren

arloetan beren ingurua aztertzen laguntzeko, berrikuntza enpresariala eta aurrea hartzeko gaitasuna sustatuz.

Teknologiaren eta adimenaren arloko Zaintza edo Alerta honela defini daiteke: aukerak sortu edo arriskuak ekarri ahal dituztelako garrantzitsuak diren inguruneke gertaerak behatzeko, hautemateko, aztertzeko, zehaztasunez eza-gutarazteko eta haiei buruzko informazioa berreskuratzeke enpresak egiten duen ahalegin sistematiko eta antolatua da. Ahalegin horren helburua arrisku gutxiko erabaki estrategikoak hartu ahal izatea eta aldaketei aurrea hartzea da. Europako eta Ipar Amerikako hainbat herrialdetan orain dela 20 urte baino gehiago hasi ziren horrelako zerbitzuak ezartzen.

Gaur egungo krisi egoeran, enpresa txiki eta er-tainentzako Adimen Estrategikoko Zerbitzu bat sortzea administrazio publikoek horrelako en-presei egin ahal dieten eskaintzarik onenetako bat da. Izan ere, berrikuntzak gero eta bizko-rrago gertatzen ari dira hala sektore tradizio-naletan nola goraka ari diren sektore berrietan, eta ezagutzak nahiz merkatuak nazioarteko di-mentsioa hartzen ari dira. Enpresa txiki eta er-tainek horrelako zerbitzu baten beharra dauka-te. Europako esperientziak kontuan izanik, astiro

eta tentu handiz egin beharreko lana da, baina oso eraginkorra izango litzateke gure industri ehuna iraunarazteko.

Nazioarteko merkataritza harreman justu eta bidezkoak

Behin baino gehiagotan azpimarratu dugun be-zala, geure ahalmenetan oinarritutako eredu endogeno bat proposatzen dugu. Eredu horre-tan, kanpo ekonomia inoiz ez da izango gara-penaren oinarria edo elementu nagusia. Era berean, oso argi daukagu sarritan hemengo negozioak hondamena dakarrela beste nonbait. Horregatik, arreta handia eskaini behar diogu herri gisa jokatu behar dugun paperari, baita merkataritza harremanei dagokienez ere.

Garapen endogenoaren aldeko apustua egiteak ez du inola ere esan nahi eredu autartiko bat proposatzen dugunik. Euskal Herriko ekonomia kanpo merkataritzara irekita dagoen ekonomia da, gauza batzuen inportatzailea eta beste ba-tzuen esportatzailea. Gure ustez, aurrerantzean ere horrelakoa izan behar du, eta hori ahalbide-tuko duten neurriak hartu behar dira.

Jakin badakigu gure ehun produktiboaren par-te handi bat esportatzailea dela, baina ez dugu

inoiz onartuko internazionalizazioaren aitzakiare-kin enpresak deslokalizatzea. Gainera, orain arte deslokalizazio gehienak langileen oinarritzko lan eskubideak urratuz egin dira (soldata urriagoak, lan prekarietatea, sindikatzeke ezintasuna...).

Beraz, gure iritziz, kanpo merkataritzak badu bere garrantzia eta gure ekoizpenaren parte baten esportazioa sustatu beharra dago, baina horrek ez du esan nahi euskal ekonomia beste-rik gabe nazioartekotzearen alde gaudela. Gaur egun, esaterako, gure herrialdean inbertitu be-harko liratekeen kapital edo aurrezki propioak esportatzeko erabiltzen da nazioartekotze hori. Bestetik, sarri askotan, kapital eragiketa horien atzean deslokalizazio prozesuak ezkututzen dira: hemen teknologian inbertitu beharrean, eskulan merkeagoa bilatzen da kanpoan.

Beraz, eta gure ekonomiaren izaera irekia be-rriro ere azpimarratuz, kanpo merkataritza sus-tatzearen aldekoak gara. Hori bai, lehen esan dugun bezala, esplotazioko lan baldintzen bila egiten diren kapital ihesen eta deslokalizazio prozesuen kontrako jarrera irmoa daukagu. Be-raz, kanpo merkataritza eta merkataritza harre-man justuak bultzatuko ditugu, beti ere beste herrialdeen eta bertako langileen eskubideak errespetatuz.

Halaber, mundu zabalean eredu sozial eta ekonomiko alternatibo baten aldeko apustua egiten ari diren herrialdeekiko merkataritza harremanak lehenetsiko ditugu, Nazioarteko Lan Erakundeak ezarritako baldintza soziolaboralak betez, tokian tokiko soldata mailak errespetatuz, leku bakoitzean sortutako gainbalioak bertan inbertituz, tokian tokiko erakunde sindikalen askatasuna errespetatuz...

4.- Hirugarren sektorea; Zerbitzuak

4.1.- Lan erreproduktiboa, zainketen ekonomia eta bizitzaren iraupenerako lana

Lanari buruzko gure ikuskera oinarritzat harturik, oso argi daukagu gaur egungo krisi sistemetik irteteko ezinbestekoa dela gure ekonomiaren zutabe nagusietako bat balioestea eta eraldatzea: lan erreproduktiboa eta zainketen ekonomia, hain zuzen ere. Nazio Batuen Erakundeak Garapen Sozialerako Ikerketa Institutuak egindako kalkuluen arabera, etxean lan egiten duen pertsona baten soldata etxeko lanak egiten ematen duen ordu kopuruaz biderkatuz gero, emaitza BPGaren % 10 eta % 39 bitartekoa izango litzateke. Bestetik, 1997ko Giza Garapenari buruzko Txostenaren arabera, ordaindu gabeko lana BPGaren % 70 zen.

Beraz, zainketa lanak funtsezkoak dira gure jendarte bideragarria izan dadin. Gaur egun, heteropatriarkatuak ezarritako lan banaketa sexistaren ondorioz, ia soilik emakumeek egiten dute lan hori. Gainera, lan ikusezina da, gehienetan soldatarik kobratu gabe egiten da eta, ordaindua bada, egoera prekarioan edo ezkutuko ekonomian egiten da. Sektore hori azaleratu egin behar da, estatistika orokorretan kontuan hartu, duin bihurtu eta jendarte osoaren nahiz gizon eta emakume guztien arduradela onartu.

Zaindua izateko eskubidea legeak aitortutako eskubide subjektiboa izan behar da, eta zerbitzu publikoen sare zabal bat garatu behar da pertsona guztiei eskubide hori bermatzeko. Hau da, zainketa lanak egingo dituzten zerbitzu publikoak sortu behar dira, familiei horretarako diru laguntzak eman beharrean, zeren eta, azkenean, diru laguntza jasotzen duten familietako emakumeek egiten dituzte zainketa lanak. Bestetik, horrelako zerbitzuei dagokienez hedatzen ari den berrordainketa edo ordaintze partekatuaren aurrean, zerga sistema orokorren bidez finantzatzearen aldekoak gara. Horrela soilik bermatuko ditugu herritar guztiek aukera berdintasunez erabili ahal izango dituzten kalitatezko zainketa zerbitzuak.

Kalitatezko zainketa bermatzeko bidean, ezinbestekoa da soldata duinak jasotzea, emakume langileen eskubide sozialak aitortzea eta gaur egun ahazturik eta zokoraturik dagoen jendarte sektore hori argitara ateratzea. Nazioarteko Lan Erakundeak egindako kalkuluen arabera, Europan etxeko lanaren % 70 eta % 80 bitartean ez da aitortzen. Azken batean, beti krisian egon den kolektibo bat da.

Laburbildurik, zainketa lana ekonomia jarduera intentsiboa da enplegua sortzeari dagokionez, ezinbestekoa bizitzaren iraupenerako, eta, hain zuzen ere, bizitzaren iraupenerako lanak ekonomiaren arlo guztiak orekatu behar ditu.

4.2.-Sektore publikoa

Lehen esan dugun bezala, sektore publikoak lidergo papera jokatu behar du eredu ekonomiko berrian.

Garrantzi eta tamaina handikoa denez, sektore publikoa estrategia integral baten bidez inplikatu behar da, dituen erronka berriei aurre egin ahal izateko, bikoiztasunak desagerraraziz eraginkortasun produktiboa hobetzeko eta sektore horretan lan egiten duten pertsonen lan baldintzak hobetzeko.

Halaber, sektore publikoan lan egiten duten pertsonak gaur egun pairatzen duten egoera abiapuntutzat harturik, tenporaltasun sistemikoa desagerrarazi eta lan baldintzak nahiz soldatak hobetu behar dira, azpikontratazioa eta pribatizazioak erabat baztertzuz.

4.3.- Komertzioa

Komertzioak egoera zaila bizi du, nagusiki hirigune eta inguruetan. Azken urteotan bi fenomeno eman dira, biak ala biak bertako komertzioari nahiz komertzio txikiari kalte egin dietenak. Alde batetik, merkatal zentro erraldoien ezarpena, komertzio txikiari konpetentzia desleiala egin diona, eta herritarron kontsumo moduak eta aisialdirako jarrerak aldatu dituena. Mota horietako zentroak milaka euskal herritarren aukera nagusia bihurtu dira oso denbora gutxitan, ez bakarrik erosketak egiteko, baita ere asteburua edo jai egunak pasatzeko.

Horrek, noski, hirietako eta inguruko herrietako auzo-komertzioari asko eragin dio, eta sektore horretan lan egiten duten langileen baldintzei ere bai, erabat kaskartu baitira. Hiri eta auzoetan komertzio txikia bezala ezagutzen den hori osasuntsu egoteak ez dio komertzioei eurrei bakarrik mesede egiten, bizia ematen baitie

kasu askotan itzaltzen ari zaizkigun auzoei.

Honen aurrean bertako komertzioa, eta bereziki txikia bultzatu eta babestu beharra dago: komertzio elkarteekin elkarlana bultzatuz, teknologia berrietarako urratsak lagunduz, bertako produktuak lehenetsiz, herriko bizitza indartzen duten ekimenak bultzatuz, sektoreko langileen eskubideak babestuz (ordutegiak, jaiegunak)...

4.4.- Finantza sektorea: Finantza sistema publikoa sortzea

Aurrezki publikoa behar sozialetara eta Euskal Herriko inbertsio produktibora bideratzea ahalbidetuko duen euskal finantza sistema publikoa sortu behar da. Ildo horretan, finantza politika publikoak oso helburu argi eta zehatza izan behar du: banku pribatuen eskuetan dauden euskal herritarren aurrezkiak Euskal Herrian bertan inbertitzea, eta ez espekulazioan. Horretarako, beharrezkoak diren neurri fiskalak eta kontrol neurriak ezarri beharko dira.

Testuinguru horretan, ez diogu uko egiten etorkizunean finantza sektorearen erregulazioa eta kontrol publiko nahiz soziala ahalbidetuko

dituzten finantza tresna publikoak edukitzeari. Bitartean, behar-beharrezkoa da Kutxabanken izaera publikoa blindatzea, garrantzi handiko papera jokatu behar baitu gure ekonomia bultzatzeko eta garatzeko apustuan. Horretarako, hauxe egin dezake: kredituen bidez laguntzea, instituzioekin elkarlanean aritzea, eredu ekonomikoa aldatzen laguntzea, gure ekonomia lehenestea, operazio espantsionistak bertan behera uztea, gizarte-ekintza sustatzea eta, azken batean, Euskal Herriaren eta bere ekonomiaren aldeko apustua egitea. Horri dagokionez, gogora ekarri nahi dugu berriro CANen ibilbide penagarria. Halaber, Euskadiko Kutxaren eta Ipar Kutxaren fusioaren aurrean, espero dugu entitate berriak gure herrialdearen garapen sozial eta ekonomikoko errealaren alde lan egingo duela, espekulaziorako tentaldiak bazter utziz.

B.- LANA ETA ENPLEGUA

Langileriaren eta herri sektoreen zerbitzura dagoen eredia

Gure eredian, ekonomia pertsonen zerbitzura dago, ez merkatuen zerbitzura. Honako oinarri hauek dituen eredia da: aberastasuna era justuan banatzea, kalitatezko enplegua

sortzea eta enplegua banatzea (ordaindua nahiz ordaindu gabea). Ildo horretan, klase eta genero harremanen artikulazioan sakontzea premiazkoa denez, lanaren kontzeptua lan ordaindutik hartagoko dimentsio zabalago batean kokatu behar dugu. Merkatuko ekoizpen hutsera mugatzen ez den sistema konplexuagotzat hartu behar dugu ekonomia, produkzioa eta erreprodukzioa garapen ekonomikoa elkarrekin lotura estua duten bi eremu gisa artikulatzeko.

Murrizketetan eta kapitalismoaren biziberri-tzean oinarrituta inposatu dizkiguten erreforma soziolaboral neoliberal guztien aurrean, lan harremanen eta babes sozialaren eredu propio bat bermatuko duten neurriak hartu behar ditu eredu horrek. Hartzen ari diren neurri neoliberal ugarien artean, orain beste sektore batzuetara eraman nahi dute etekinik handienaren logika, publikoa ordezkatzuz, soldata jaitziz edo jubilazioko adina atzeratuz.

Beraz, gure ereduak inbertsio argia egingo du, gaur egun egin dezakegun inbertsiorik onena: Euskal Herria bera. Gure herriko ekonomian eta langilerian inbertituko du, lanaren banaketa erreala eta gizon-emakumeentzako aukera berdintasuna abiapuntutzat harturik.

Kalitatezko enplegua sortzeko eta lanbide prestakuntzarako politika eraginkorrak adostea

Langabeziak, lan prekarietateak eta azpimi-leurismoa bezalako fenomenoek bizi-baldintza duinak lortzeko aukera guztiak zapuzten dituzte, gure garapen ekonomiko eta soziala eragozten duten gaitz larriak dira. Herritarren bizi-baldintzak hobetzeko, teknologia hobea-goetan eta lanbide prestakuntza hobean oinarritutako eredu baterantz jo behar dugu, soldata lehian oinarritutako eredu atzean utziz.

Horregatik, gaur egungo egoeran, kalitatezko enplegua sortzeko ezinbestekoa da aberastunaren banaketa orekatuagoa, honako helburu hauek lortzeko:

- Lanaldiaren laburtze orokorra enplegua banatzeko.
- Lanaldiaren laburtze orokorra laneko bizitza eta lanetik kanpoko bizitza bateragarriak izan daitezen.
- Soldaten oreka zentzuzkoa gaur egun dagoen desberdintasuna desagerrarazteko.

- Etengabeko prestakuntza, lanbide prestakuntza hobea eta laneko teknologia berriak sustatzearen aldeko apustu argia.

- Kontratazioan kausalitatea berreskuratzea eta azpikontratazioen katearekin amaitzea.

- Europako Gutun Sozialaren parametroetan kokatutako lanbide arteko gutxieneko soldata.

Halaber, hiruko akordio berriak eskatzen ditugu administrazioaren, sindikatuen eta enpresaburuen artean, lanbide prestakuntzaren arloan gaur egun dauden sistemak (lanerakoa, arautua eta etengabea) integratuko dituen Lanbide Heziketa eredu berri bat eraikitzeko. Eredu berriak eskaria sustatu behar du, enpresen eta langileen kotizazioak hurrenez hurren prestakuntza etengabea eta lanerako prestakuntza finantzatzeko baliatuz.

Lan osasuna babesteko eredu berria behar dugu, prebentzioa, prestakuntza, ikuskapena eta eredu bera antolatze eta finantzatzeko ahalmena barnebilduko dituen.

Azkenik, etorkinen nahiz gazteen esplotazioa eta etxeko langileen lana oinarri dituen ezkutuko ekonomia azaleratu behar da.

C.- POLITIKA FISKALAK

Azken lau urteotan zerga-sarrerek behera egin dute krisiaren eta gobernuek bultzatutako politika neoliberalen eraginez, eta baliabide horiek ezinbestekoak dira sektore publikoak ondasun eta zerbitzuen hornidura ziurtatzeko, prestazioak ordaintzeko eta inbertsio publikoak egiteko. Bestetik, finantzaketa arazo horien ondorioz, defizit publikoak gora egin du eta zorraren interesez eragindako gastua igo da.

Egoera horren aurrean, administrazioek aurrekontuak doitzeko eta murrizteko neurri gogorrak aplikatzea erabaki dute. Frogatuta geratu denez, horrek ez du krisitik irteteko balio izan eta, gainera, beste atzeraldi baten atarian jarri gaitu. Halaber, murrizketa horien ondorioz, oinarritzko zerbitzu publikoetarako diru funtsak urritu egin dira, eta horrek eragin nabaria izan du zerbitzu horien kalitatean eta lan baldintzetan.

Euskal sektore publiko berria behar dugu, indartsua, jendartearen parte-hartzean eta inplikazioan oinarritua. Ereduz sozioproduktiboan egin nahi ditugun aldaketak gidatuko dituen eta gure lurraldearen bertebrazio soziala eta ekonomikoa lortzen lagunduko duen sektore publiko behar dugu.

Sektore publiko berri horren ekimenez, lurraldeen arteko konbergentzia marko partekatu bat sortu behar da, arlo ekonomikoan eta soziolaboralean plangintza adostuak egiteko. Ezin dugu inposatzen dizkiguten estatu mailako estrategien eraginez elkarri bizkar ematen jarraitu, lurralde bakoitza norabide batean arraun egiten. Lurralde guztien arteko lankidetzaz urgente eta ezinbestekoak sortuko lituzkeen sinergia lagungarriak baliatu behar ditugu.

Sektore publikoaren arloan bultzatu nahi dugun eredu berriak zerbitzu publikoen kudeaketa gardena, eraginkorra eta sozialki desberdina egitea eskatzen du, zerbitzu publikoak interes alderdikoi edo partikularretarako erabil ez daitezela.

Bestelako politika fiskala helburu izango duen sektore publikoa

Politika fiskala aberastasuna birbanatzeko funtsezko elementua da. Eta finantzaketa eredu egokia edukitzea erabakigarria da birbanaketa nahikoa eta eraginkorra egiteko aukerak ahal beste baliatzeko.

Politika fiskalaren bidez, politika publikoak aldatzeko estrategiari ekiteko beharrezkoak diren baliabide ekonomiko publikoak eskuratu behar dira.

Halaber, izaera sozial argia izango duten eta gure ehun produktiboa sustatuko duten aurrekontuak bultzatu behar dira.

Gaur egun, sistema fiskal bidegabea eta erregresiboa eratu da, neurri zehatzen bidez: enpresentzako “opor fiskalak”, sozietate zergaren murrizketa, PFEZen kapitalaren errentei emandako tratamendu pribilegiatua, presio fiskala zeharkako zergetara bideratzea...

Aitzitik, izaera sozialeko demokrazia bat eraiki nahi duen jendarte orok behar duen zerga sistemak berdintasunaren eta gehikortasunaren printzipioa berreskuratu behar du errenta guztien tratamendu fiskalean.

- Iruzur fiskalaren kontra borrokatzeko konpromiso irmoa hartu behar da. Lehenik, ekitate eta justizia fiskalak hala eskatzen duelako. Bigarrenik, zergen bidez gure herrialdeko behar sozialak asetzeko beharrezkoa den dirua bilduko dela bermatzeko.

- PFEZen benetako erreforma egin behar da, zerga gehikorragoa eta solidarioagoa izan dadin. PFEZek aberastasunaren birbanatze funtzioa berreskuratu eta errenta mota guztiak (lanarenak, kapitalarenak, ondarea handitzearenak)

era gehikorrean zergapetu behar ditu, gehiago daukanak gehiago ordainduko duela bermatzeko.

- Ondarearen gainera zerga mantendu behar da. Zerga horren helburua aberastasunaren banaketa justuagoa lortzea da, baina garrantzi handiko erroldatze funtzioa ere betetzen du, ondare handien PFEZ aitorpenak kontrolatzea ahalbidetzen baitu. Halaber, errentarik handienek zerga hori ez ordaintzeko erabiltzen dituzten bideak moztu behar dira.

- Lehia fiskalari eta Sozietateen gainera Zergaren jaitsiera etengabea amaiara eman behar zaie. Zerga horrek sistemari egiten dion ekarpen fiskala askoz handiagoa izan beharko litzateke. Horrekin batera, 1995etik 2000ra bitartean “opor fiskalak” izan zituzten enpresek zergen bidez ordaindu ez zituzten 1.800 milioi euroak berreskuratzeko eskatzen diegu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ogasunei. Diru hori helburu sozialetara erabili beharko litzateke.

- Erabateko burujabetza fiskala berreskuratu behar da, baina gaur egungo Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoarekin ezinezkoa da helburu hori lortzea. Gainera, Madrilen onartutako neurri fiskalak imitatzeko eta kopiatzeko joera alboratu behar da.

- Pribilegio fiskalak eta zorraren barkatze arautu gabeak desagerrarazi behar dira.

4.2.- KRISI EKOLOGIKOARI AURRE

LURRALDE ARTIKULAZIOA: Lurralde antolaketa eredu berria

Nolako lurralde antolaketa gauzatzen den, halako herria izango dugu. Lurralde antolaketak azpiegituretan, lur-sail bakoitzaren funtzioetan, etxebizitzan, herri eta hirien arteko oreka/desorekan, garraio bideen norabidean, kaleko bizitzan, energia ustiapen motetan, naturarekiko harremanetan, baliabideen erabileran eta abar luze batean eragiten du.

Parte-hartzea erraztuko duen ahalik eta lurralde antolaketa deszentralizatuena behar dugu, garapen endogenoa oinarri, Euskal Herriaren bertebrazioa kontuan hartuko duena. Eskualdea edota koadrila ardatz izanik, herrien arteko sinergiak baliatuz, harreman-eskualde naturalen oinarrituko den lurralde antolaketa bultzatuko da, bilakaera historikoak inposatu dituen muga administratiboak erazuz, kudeaketa natural eraginkorrena ahalbidetuko duena eta

administrazio desberdinen arteko kompetentzien solapamenduak ekidingo dituena.

Gaur egun auzoak, herriak eta eskualdeak ahultzen ari dira. Hiriburuak indartzen ari diren bitartean, herrietan bizitza itzaliz doa. Oreka bilatu beharra dago hiriburu, eskualde eta herrien artean lurralde antolaketa berri baten barruan, herri/hiri/eskualde eredu orekatua behar dugu, ingurumenarekin harremanetan bizitzeko ahalbidetuko duena, lekuan leku lan egin eta bizitzeko aukera ematen duena, auto-hornikuntza eta auto-kudeaketa bultzatuko dituena, herriaren garapena jendartearen premietara egokituko duena, eta ez merkatuak eskatzen duenera. Beren nortasuna eta autonomia gordez, inguruko herriekin harremanak landuko dituzten herriak nahi ditugu (harreman kulturalak, elkarlanekoak...).

Herritarren beharrei erantzungo dieten herri eta hiriak planteatuko dira, eskala humanoan egindakoak, non, besteak beste, honako hauei garrantzi berezia emango zaien: eskolak, osasun-etxeak, berdeguneak, aisialdi-guneak, kirol-guneak, helkortasuna ziurtatuko duten bitartekoak, bilera-guneak, karrika seguruak...

Gainera, genero ikuspegia kontuan hartuko duten hiri funtzionalak behar ditugu, eta ez egun-

go hiri eredua, independentea, motorizatu eta landuna den gizonezkoari erantzuten diona.

Era berean, bizitzeko herri eta hiri eredu jasangarri eta iraunkorra behar dugu, ez turismoari begirakoa. Zerbitzuen eta biztanleria-guneen arteko arrazionaltasuna bultzatuko duena eta mugikortasun naturala ziurtatuko duen garraio publiko egokia izango duena.

-Garraio eredua: Azpiegituren arloko estrategia berria

Lehenik eta behin, argi utzi nahi dugu: garraioa zerbitzua da, ez negozioa. Alde horretatik, mugikortasun beharrak asumituta (pertsonek zein merkantzien garraioa), garraio sistema pribatuaren aurrean, garraio publiko, orekatu, sozial, garbia, funtzionala eta jasangarria sustatuko da, lurraldeen eta herrien arteko kohesioa bultzatu eta eskualdeen bazterketa ekidindu duten ardatz komarkalak eta ferrokarrila indartuz. Alor honetan, eta distantzia handietako garraioa baztertu gabe, distantzia txikiko garraioek izango dute lehentasuna.

Proiektu faraonikoak behingoz baztertu behar dira. Izan ere, hurrengo belaunaldietan ezinezkoa izango da horrelako proiektuak amorti-

zatzea, egungo eraikuntza kostuak nahiz etorkizuneko mantentze kostuak ikaragarri handiak baitira. Banaka batzuk aberastuko dituzten baina jendartearentzat errentagarritasun urria izango duten obrak dira, gure kontu publikoak hipotekatuko dituzte eta sustatu nahi dugun garapen eredu integralerako beharrezkoak diren azpiegituren garapen integrala eragotziko dute.

Horregatik, garraioaren eta lurralde artikulazioaren arloko estrategia berria definitu behar dugu, gaur egungo programazio eta diseinu irizpideak aldatuz. Azpiegituren finantzaketari dagokionez, lehentasuna eman behar zaio trenari, trenbide sare multifuntzionala egiteari. Garraio politikaren ardatz nagusia, berriz, trafikoko eskariaren kudeaketa izan behar da, eta ez azpiegitura berrien eskaintza itsua.

Zentzu horretan, azpiegitura berriak biztanleriarengan pentsatuz garatuko dira, jendarte-beharrei erantzunez, eta ez enpresa interesei. Errepide eta trenbideez harantzago, autobusak, argindar eta gas linea nagusiak, zuntz optikoa, telefonia, interneteko zerbitzariak, teknologia berrietarako baliabideak, I+G+B zentroak, osasun zerbitzuak, etxebizitza, aparkalekuak, hondakinen ku-

deaketa zentroak, museoak, eskolak, unibertsitateak... izango dira zorrotz kontrolatuak izango diren azpiegitura publikoak.

-Energia eredu berria

Erresilentzia irizpideak erabiliz, egoki kudeatutako energia eredu natural eta deszentralizatuak bultzatuko dira, efikazak, efizienteak eta iraunkorrak, osasunari eta naturari ahalik eta kalterik txikiena eragingo diotenak, azpiegitura handiak saihestuz (presa handiak, adibidez) eta energia garraiatzeko tensio altuko autopistak ekidinez, modu horretara, garraioan galtzen den energia kopuru handia ere saihestiko litzatekeela. Bide berean, energia baliabideen garrantziaren gaineko formazioa ezinbestekoa da, horiek aurrezteko sustatuko duten ohitura berriak sortze aldera.

Benetan garbia eta inolako inpaktu ekologikorik ez duen energiari ez dagoela jakitun, energia berriztagarriak garatu eta ugarituko dira, inpaktu txikiena duenetatik hasita (biomasa, geotermia...), era berean, ekoizpenerako kontsumo maila razionala bilatuz, beti ere maila energetiko baxuko iturriak erabiliz eta garraio distantziak ahal beste murriztuz.

Sistema kapitalista neoliberalaren helburu nagusia epe laburreko etekin ekonomikoa besterik ez denez, administrazio publikoak “adabaki berdeak” jartzera mugatu dira, iraunkortasunaren benetako kontzeptua alboratuz.

Inolako zalantzarik gabe, transbertsalitatea izan behar da ingurumen politika eraginkor baten gakoa, baina erabat baztertu da energiaren, garraioaren, lurralde antolaketaren, industriaren eta beste arlo batzuetako politiketan. Adibideak oso ugariak dira: zentral termikoak, abiadura handiko trenak, hondakinen errausketa, ingurumen kaltebera duten lekuen urbanizazioa, harrobiak parke naturaletan... Tamalez, zerrenda askoz luzeagoa da.

Herritarren kontzientziazio handiagoaren eraginez nagusiki, urrats batzuk egin dira transbertsalitate hori lortzeko bidean, baina garapen sistemaren planteamendu integralik egin gabe, eta hori funtsezkoa da eredia errotik aldatzeko. Izan ere, garapen eredia aldatzea nahitaezkoa da benetan eredu iraunkor bat sortzeko: ekosozialismoa. Gainerako guztia “adabaki berdeak” jartzea besterik ez da.

Ildo horretan, ezinbestekoa zaigu ingurumenaren arloko jarduketaren eremu guztiak erregu-

latuko dituen arau sorta bat edukitzea, gaur egungo garairako egokia eta Europar Batasuneko dagokionez egiten ari diren aldaketak jasoko dituenak. Gaur egungo garapen eredia natur baliabideak suntsitzen eta agortzen ari denez, araudi horrek ingurumenaren arloko transbertsalitatea ezarri behar du, eredu benetan iraunkorra sortzeko.

Horrekin batera, klima aldaketan duten eragina minimizatzeko asmoz beren ekoizpen prozesuak egokitzen dituzten enpresak sustatu eta babestuko dira. Besteak beste, enpresek honako neurri hauek hartu behar dituzte: teknologia garbiagoak erabiltzea, energia eta ur gutxiago kontsumitzea, ingurumen kudeaketarako sistema egiaztatutakoak ezartzea...

Halaber, herrialde pobretuetara energia berriekin arloko teknologia transferitzea bultzatuko da, baldintza justuetan eta zor ekologikoa ordaintzeko bide gisa.

Tokian tokiko teknologia zentruetan inbertituko da eta nazioarteko ikerlariarekin lan egiteko hitzarmenak sustatuko dira kontsumo energetikoa murrizteko moduak eta ekoizpen zein distribuzio eredu berriak aztertzea, energetikoki auto-hornituko diren etxe, auzo, herri eta hiriak

lortze bidean. Ildo horretan, Euskal Herriaren energia burujabetzara hurbiltzeko politikak garatuko dira eta Ama Lurrarentzat kaltegarriak ez diren energia iturriak bilatuko dira.

-Biodibertsitatearen eta natur baliabideen defentsa

Arlo horretan dagoen arazo nagusia hau da: gaur egungo garapen sistema eta natur inguruenaren babesa elkarren kontrako norabidean doaz. Zoritxarrez, kasu gehienetan, natur inguruenaren eta, hedaduraz, biodibertsitatearen kalteak.

Horregatik, funtsezkoa da mentalitatea aldatzea eta ingurumenaren arloko jarduketaren eremu guztiak erregulatuko dituen arau sorta bat edukitzea, koherentziaz beteko duguna eta Euskal Herri benetan iraunkorra eta ekologikoa eraikitzea ahalbidetuko duena. Gaur egungo garapen eredia natur baliabideak suntsitzen eta agortzen ari denez, araudi horrek ingurumenaren arloko transbertsalitatea ezarri behar du, eredu benetan ekologikoa sortzeko.

-Hondakinen politika eta ekonomia berdea

Hondakinen kudeaketa ereduari dagokionez,

ez dago kontzeptu bakarra, elkarrekin bizi daitezkeen praktika eraginkor anitzak baizik. Dena den, praktika eraginkor guztiek hiru ezaugarri komun dituzte: 1) hondakin-ekoizpena ahalik eta gehien murriztu, 2) hondakinak birziklatu, eta 3) benetako hondakin ez direnak berrerabili edota elkartrukatu.

Gehiegizko kontsumoaren eta hondakinen logikaren aurka, ezaugarri horiek dituzten kudeaketa ereduak sustatuko dira, sormenaren eta auzolanaren bidez, “zero zabor” kontzeptura ahalik eta gehien hurbiltzeko. Bide horretan, kontzientziazio eta formazio egokia bultzatu, hondakinen gaikako bilketa sustatu (atez atekoa...), eta hondakinak birziklatzeko, konpostatzeko edo berrerabiltzeko instalazioak sortu behar dira, besteak beste.

Hondakinak kudeatzeko praktika egokienak aurrrera eramanda ere, ziur asko, ez gara berehalakoan zero zabor ekoiztera iritsiko, hori dela eta, birziklatu edota berrerabili ezin daitezkeen zaborrak elimintzeko sistemaren bat beharrezkoa izango da. Hori dela eta, ingurumenari zein osasunari kalte gutxien egingo dioten sistema ahalik eraginkorrenak aurkitzeko ikerketa inbertsioak egingo dira.

Atal guzti horietan ekonomikoki inbertitzea ingurumenean eta giza ongizatean inbertitzea da eta, gainera, enplegua sor daiteke. Horregatik, instituzioek bultzatu eta babestu egin behar dute sektore hori.

4.3.- KRISI SOZIALARI AURRE

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak jasotzen dituen giza eskubideak bi multzotan bana daitezke. Alde batetik, “lehen belaunaldiko” eskubideak ditugu. Nagusiki askatasunaren eta bizitza politikoan parte hartzearen inguruko eskubideak dira eta pertsonak Estatuaren gehiegikerietatik babesteko balio dute. Beste alde batetik, “bigarren belaunaldiko” giza eskubideak jasotzen dira. Berdintasunaren arlokoak eta, bereziki, eskubide sozial eta ekonomikoen ingurukoak dira, eta herritar guztiei bizi baldintza egokiak eta tratu berdintasuna bermatzeko balio dute. Besteak beste, lanerako, hezkuntzarako, etxebizitzarako, osasunerako, gizarte segurantzarako eta langabezi prestazioetarako eskubideak dira.

Gaur egun, gure jendartean, eskubide horietako batzuk sistematikoki urratzen dira, zuzenean edo

zeharka. Langabeziari erantzuteko eta gutxieneko errenta nahiz jendarteratze errenta bermatzeko sistemak ez dira gai langileriaren beharrak era duin eta egokian betetzeko. Beraz, eskubide horiek indartzeari ekin behar zaio. Fase honetan, politika sozialekin konprometitutako aurrekontuak behar dira, gastu soziala inoiz baino gehiago handituko duten aurrekontuak, biztanleriaren oinarritzko beharrei erantzuteko eta herritarren eskubideak bermatzeko. Aurrekontuek babes sozialaren eremuko inbertsioa handitu behar dute, Europako batezbestekora iristeko.

Zerbitzu sozialak eskubide subjektibo perfektutzat hartu behar dira eta, beraz, administrazio publikoa da bermatu behar dituen. Horretarako, Zerbitzu Sozialen Sistema publiko propioa sortu behar dugu. Zerbitzu publikoak kudeaketa publikokoak izango dira, eta dauden behar guztiak estaltzeko diru-hornidura nahikoa jaso beharko da aurrekontuetan. Horri dagokionez, Zerbitzu Sozialen sistema berrantolatu egin behar da, elkarrizketaren bidez.

Ildo horretan, ezinbestekoa da soldata duinak ordaintzea, langileen eskubide sozialak aitortzea eta gaur egun ahazturik eta nagusiki emakumez osatuta dagoen jendarte sektore hori argitara ateratzea.

Pertsona guztiek bizitza proiektu duin baterako eskubidea bermatuko dien gutxieneko oinarri materiala izan behar dute. Horretarako, lege sozial nagusia beteko dela bermatu behar da, jendartea osatzen duten pertsona guztiei bizitzeko baliabideak bermatzen dizkien legea, alegia. Eskubide hori finkatu nahi badugu, eztabaida sozial eta politikoa egin behar dugu, Oinarrizko Errentari buruzko proposamen bat artikulatzeko.

Langabeziari erantzuteko eta gutxieneko errenta nahiz jendarteratze errenta bermatzeko egungo sistemak ez dira gai langileriaren beharrik era duin eta egokian betetzeko. Horregatik, Oinarrizko Errentari buruzko eztabaida egiten ez den bitartean, soldata soziala ezin da egon pobreziaren mugaren azpitik, eta muga horren gainetik dauden prestazio sozialak edo soldata-errentak jasotzen ez dituzten pertsona guztiek soldata sozial hori kobratzeko eskubidea izan behar dute.

Ekonomia sozial eta solidarioaren aldeko konpromiso irmo eta argia dugu. Horregatik, honako oinarri hauek izango dituen ekonomia eredu bat eraikitzen hasi behar dugu: parte-hartze aktiboa, elkartasuna, ekitatea, jendarteratzea eta feminismoa. Eredu horren helburu bakarra pertsona guztien beharrik betetzea izango da.

-Zerbitzu sozialen sistema: Zerbitzu publikoak eta sozialak

Sektore publikoa izan behar da herritarrei zerbitzuak eskaintzen dizkien eragile nagusia. Osasunarekin eta hezkuntzarekin batera, menpekotasuna duten pertsona guztiei zainketa zerbitzu integrala eman behar die. Zainketen arloan inbertitzea onuragarria izango da herritar guztientzat, enplegu duina sortuko du eta gaur egungo eredu produktibista-kontsumistatik beste eredu batera igarotzen lagunduko du. Sortu nahi dugun eredu berrian, bizitzaren zainketa eta denbora produktu prestigiatuak izango dira, gure planetaren etorkizuna hipotekatzen ari den kontsumismo neurrigabearen ez bezala.

Politika sozialaren oinarria eta helburu nagusia herritarren ongizatea handitzea da, eskuhartze publikoen bitartez, herritarren berdintasuna eta segurtasuna ziurtatzeko (haien bizi baldintzetan). Berdintasunaren aldeko borroka horretan, ezinbestekoa da herritar-tasun kontzeptua zabaltzea, haren baitan eskubide sozialak, laboralak eta demokratikoak txertatzeko eta garatzeko. Helburua klaserik eta zapalkuntzarik gabeko jendartea eraikitzea da.

Zerbitzu sozial publikoen eskaintza aldeztu dugu, ez zerbitzu sozialen eskaintza publikoa. Printzipio horren arabera, administrazio publikoak zuzenean eskaini behar ditu zerbitzu sozialak, une oro kontrolatu eta ikuskatu behar ditu, eta bere langileekin egin behar du hori guztia (funtzionarioekin nahiz kontratatuekin). Horrela, administrazioak zerbitzu sozialen kontrol zuzena izango luke, langileek lan baldintza duinak izango lituzkete eta zerbitzuen kalitatea ziurtatuko litzateke.

Zerbitzu publikoak nahiz euskal langileriaren eskubideak bermatuko dituzten prestazio sozialak areagotu eta hobetuko dituen sektore publikoa behar dugu.

Zerbitzu sozial publiko unibertsalak eta kalitatezkoak

Jendarteak laguntzaren eta zainketen arloko lana bere gain hartzeak dakarren guztia hiru multzotan banatzen dugu: eginbeharrak famili unitatea osatzen duten pertsona guztien artean banatzeko eta guztiek parte hartzeko neurriak, lan ordaindua eta zainketa lana bateragarri izateko neurriak, eta herritar guztiek erabili ahalko dituzten zerbitzu soziokomunitario publikoak.

Zerbitzu sozialen sare publiko eta kalitatezkoa behar dugu. Zerbitzu horiek pobrezian, bazterketan eta marjinazioan eragina duten elementu guztien gainean jardun behar dute, beste arlo batzuekin (osasuna, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, kultura) era koordinatu eta integralean lan eginez. Bazterketa soziala pairatzen duten pertsonak ez ezik, herritar guzti-guztiek zerbitzu horiek inolako mugarik gabe erabiltzeko aukera izan behar dute.

-Hezkuntza: Hezkuntza sistema propioa

Hezkuntza sistema propioa gaur egungo krisi ekonomikoari eman beharreko erantzunaren zutabeetako bat da. Hezkuntza sistema funtsezko tresna da balioetan hezteko, pertsonaren garapen integrala sustatzeko eta bizi baldintza duinak lortzeko beharrezkoak diren mekanismo kolektibo eta indibidualak lortzeko.

Behar horiei gure errealitate ekonomiko eta sozialetik erantzuna emango dien hezkuntza sistema propio bat ezinbestekoa da. Halaber, hezkuntza sistema integral baten erreferentea izango den euskal eskola publiko berria behar dugu, giza balioetan oinarritua, euskalduna, laikoa, herrikoia, demokratikoa, parte-hartzekoa, integratzailea, koedukazioan oinarritua, plurala eta dibertsita-

tearekin begirunetsua, kalitatezkoa, euskal kulturari lotua, mundura irekia eta doakoa. Bide horretan, ikuspegi integrala izango duen Hezkuntza Sistema Nazionalaz ari gara, Haur Hezkuntzatik hasi eta Unibertsitateraino iritsiko dena, bere baitan hezkuntza formala, ez-formala, arautua eta ez-arautua bilduko dituen eta Euskal Herrian Euskal Herrirako sortutako curriculum propioa izango duena.

Hezkuntza Publiko propioaren alde egiten dugu. Egun gure herrian ezarri diren ereduak akatsak ekidinez, egungo administrazioekiko menpekotasuna gaindituko duen eredu publiko propioa behar dugu: nazionala, euskalduna, herritarra, parte hartzailea, hezkidetzalea, eta eredu pedagogiko-metodologiko askatzaile duna (sentimendu kolektiboa izango duten pertsona kritiko, konprometitu, aske eta integralak heziko dituen). Hezkuntza doakoa, irekia, teknikoa, zientifikoa, laikoa eta burujabea nahi dugu, hau da, kanpoko esku-hartzerik gabe eta komunitatearekin etengabeko elkarlanean, euskal nortasuna ardatz duena; errealitate gertuetatik hasita errealitatea ulertu eta eraldatzeko baliabideak ematen duen heziketa eredu, I+G+B (ikerketa, garapena eta berrikuntza) oinarri izango duena. Honako hauek dira eredu horren erronka nagusietako batzuk: ezberdintasunerako eskubi-

dea bermatzea eta hezkuntza baztertzalea arbuizatzea, ingurumena defendatzeko hezkuntza ziurtatzea, demokraziarako hezkuntza lantzea, irakasleriaren funtzioak birformulatzea eta eskolaren funtzio alternatiboak bultzatzea.

-Osasun publiko unibertsala eta doakoa

Osasunerako eskubidea ongizate estatuaren zutabe nagusietako bat da, hezkuntzarako eta babes sozialerako eskubidearekin batera. Horregatik, osasun sistema are hurbilagoa, gardenagoa eta eraginkorragoa behar dugu, horretarako beharrezkoak diren baliabide guztiak izango dituen.

Pertsona guztien osasun eskubidea bermatu behar da, parametro humanisten arabera kudeatutako sistema soziosanitario publiko, unibertsal, doako eta kalitatezkoaren bidez. Sistema horretan, jendarteak osasun politiken diseinuan eta ebaluazioan parte hartu behar du.

Sistema soziosanitarioak osasun zerbitzu guztiak barnebildu behar ditu: osasunaren sustapena eta garapena bermatzekoak, gaixotasunak prebenitzekoak, sendatzekoak eta gaixotasunak izan dituzten pertsonak suspertzeko eta birgizarteratzekoak.

Azken urteotan, osasun sistema publikoak desprestigiatzeko eta desegiteko kanpaina zabalak ikusten ari gara, sistema sanitario publikoak privatizatzeko eta eremu horretan negozioa egiteko asmoz.

Guk aldezen dugun sistemak benetan izango du pertsona ardatz, pertsona guztiak. Horregatik, osasunaren sustapena, gaixotasunen prebentzioa eta osasun publikoarekiko interes politikoa berpiztea lehenesten dugu. Besteak beste, hauek dira gure helburuak: itzarote zerrendekin bukatzea, giza baliabide nahiz baliabide materialen urritasuna desagerraraztea eta pribatizazioari ateak ixtea. Hori guztia, osasuna babesteko eskubidea benetan herritar guztien eskubidea izatea lortzeko, eta ez ordaindu ahal dutenen pribilegioa.

-Genero diskriminaziorik gabeko eredia

Ezinbestekoa da azken urte luze hauetan pairatzen ari garen krisi estrukturalari ikuspegi feministatik aurre egitea. Bestela, emakumeek gainean daramaten zama astunaren eraginez, jendartean daukaten posizio bidegabekoa areagotzeko eta betikotzeko arriskua dago.

Berdintasuna ezin da berdintasun plan edo uni-

tateetara soilik mugatu. Premiazkoa da egitura patriarkalak ekinbide transbertsal baten bidez aldatzea, aldaketak estrukturalak izan daitezzen. Horri dagokionez, eskubide sozial, laboral, produktibo eta erreproduktiboak bermatuko dituen eredu ekonomiko eta sozial alternatibo baten aldeko apustua egin behar dugu, gaur egungo sistema kapitalista patriarkalean emakumeek arlo horietan guztietan pairatzen duten diskriminazioa desagerrarazteko.

Publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomiarekin apurtu behar dugu, jendarte ekitatiboa eraikitzeko. Egitura patriarkalek sortutako estereotipoek, sexuaren arabera lan banaketak eta askotariko indarkeriek ezin dute baldintzatu jendartea osatzen dugun gizon-emakumeon bizitza.

-Etxebizitza

Euskal Herrian indarrean dauden ordenamendu juridiko ezberdinek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea pertsona orori dagokiola aitortzen badute ere, errealitatea oso bestelakoa da. Lehen mailako behar eta eskubidea den arren, gaur egun etxebizitza luxuzko ondare bihurtu da. Higiezinaren burbuila lehertzearekin batera, urteetan zehar etxebizitza eraikitzearen

zirklo osoak (lurzorutik hasi eta giltzak eman arteko bidean) izan duen espekulazio funtzioa geratu da agerian. Eta etxebizitzaren gaia lantzeko eta garatzeko modua errotik aldatzen ez baldin bada, ezinezkoa izango da eskubide hori gauzatu ahal izatea.

Argi dago etxe-kaleratzeen kasua oso larria dela, hipotekari ezin aurre eginda, horrenbesteko irabaziak dituzten eta horrenbesteko diru-laguntzak jasotzen dituzten bankuek kale gorrian uzten baitzaituzte. Horren aurrean, gauzak argi eduki behar dira: etxe-kaleratzeen arazoa ondorio hutsa da eta, horregatik, etxebizitzaren arazo orokorraren baitan ulertu behar da.

Beraz, gure planteamendua etxebizitza eskubidea bermatzearen ingurukoa da, ez etxebizitza jabegoan izatearen eskubidearen ingurukoa. Hori horrela, honako oinarriak aintzat hartuko dira:

- Alokairu sozialeko etxebizitza sustatuko da, gaur gaurkoz, salmentarako diren Babes Ofizialeko ahalik eta Etxebizitza gutxien egin daitezten bultzatuz (alegia, dagoeneko onartuta dauden kasuetan, alokairu sozialerako ehuneko ahalik eta handiena lortzeko bidea eginez) eta, etorkizunera begira, gure azken helburura sal-

mentarako Babes Ofizialeko etxerik ez egitea litzatekeela argi izanik, alokairu soziala sustatzea baizik.

- Etxebizitza guztiontzat aldarrikatuko da.
- Erakundeek, oinarrizko eskubide soziala den heinean, arazo hori konpontzeko ardura dute.

-Parte-hartze demokrazia

Gure proposamen politikoaren oinarria jendarte gehiengo zabalaren parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa da. Herritarrek gai izan behar dute beren eredu eta lehentasun propioak definitzeko eta inplementatzeko, hala politikaren arloan nola ekonomiaren, kulturaren eta jendartearen arloan. Horrela soilik esan ahal izango dugu herri subiranoak gobernatutako jendarte demokratiko batean bizi garela.

Boterea herrian datzala eta herritarren kontrolpean egongo dela ahalbidetuko duen eredu behar dugu, egun nagusi den herritarren eta instituzioen arteko harreman-eredua aldatzeko bide emango duena; boterea herriak, herritik eta herriarentzako gauzatzea ahalbidetuko duen eredu. Zentzu horretan, eredu horren

alde jokatzen dute Euskal Herriaren demografiak eta lurraldearen neurriak; izan ere, txiki izateak erabaki, baliabide, zerbitzu eta etekinen kudeaketa lokal, parte-hartzaile eta zuzena ahalbidetzen du, justizia sozialerako eta benetako demokrazia eskuratzeko arrakastatsua izan daitekeen bidea marraztuz; hots, parte-hartze demokrazia garatzeko aukerak biderkatuz. Bide horretan, herriaren parte-hartzea ezin da huteskudetara mugatu; boterea herritarren esku egonik, politikarien lana eztabaida eta erabaki guneen antolaketa eta koordinazioa litzateke.

Demokrazia bizitzaren eremu guztietara zabalduko da eta parte-hartzearen kulturaren biziko da. Parte-hartze demokraziak herritarrak elikatu eta herritarrekin elikatuko da. Sistemaren zutabea jendartearen maila lokaleko antolaketa kolektiboak behar du izan. Auzo, herri, lantoki, ikastetxe eta abarretan antolatuko dira herritarrak, dagozkien erabakiak hartu eta kudeatzeko. Eskualdea, herria eta auzoa dira herritarron identifikazio- eta integrazio-gunerik indartsuena, non herritarra parte aktiboa sentitzen den, haren bizitza, erabaki, egituraketa, garapenari... dagokionez.

Parte-hartzeari buruz hitz egiten dugunean, hiru esparru jorratu nahi ditugu:

- Jendartearen parte-hartze zuzena erabaki politiko estrategikoetan.
- Jendartearen eskubidea instituzio publikoetan mugitzen den informazio guztia eskuratzeko.
- Administrazio eta instituzio publikoak hurbiltzea eta funtzionamendua erraztea jendarte osoari.

Beraz, aldeztu dugun demokrazia erreala eraikei ahal izateko, ezinbestekoa da jendarte eredu zeharo aldatzea, kalitatezko parte-hartze berdintasunezko jendarteetan soilik lor baitaiteke. Gainera, ekonomia ereduak parte-hartze komunitario eta publikorako denbora eta baliabideak bermatu behar ditu. Azkenik, parte-hartzearen kultura orokortu behar da, parte-hartzeari funtsezko balioa emateko.

Zentzu honetan, Euskal Herrian bizi diren guztiek izan behar dute parte hartzeko eskubidea, edozein prozesu parte-hartzailetan. Alegia, parte-hartzea ez da mugatuko paperak dituztenei eta errolda administratiboetan daudenei.

Halaber, gaur egungo ereduak eremu pribatura mugatzen ditu emakumeen eguneroko jarduerak,

gizonezkoen parte-hartze eta jardun publikoa handiagoa baita. Ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea helburu duten proiektu guztietan errealitate hori aintzat hartzea, egoera hori aldatuko duten erabakiak hartu ahal izateko, hau da, hausnartzeko eta emakumeen parte-hartzea ahalbidetuko duten neurriak hartzeko.

Gure ustez, garrantzi handikoa da instituzioek, sindikatuek, sektore publikoko langileek, eragile sozialek eta jendarte osoak politika publikoen garapenean eta ebaluazioan parte hartzea. Zerbitzu publikoak garatzea eta hobetzea eremu horretan lan egiten dugun eta helburu horrekin konprometitzen garen guztion ardura da.

Halaber, behar-beharrezkoa da sektore publikoak eta instituzioek parte-hartze demokratiaren aldeko apustu argia egitea. Mugarik gabeko informazioa, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bermatu behar dituzte, hala instituzioen aurrekontuak egiteko orduan nola beren izaera estrategikoagatik pertsonen parte-hartze erreal eta egiazkoa eskatzen duten politikak diseinatzerakoan. Edonola ere, herritarren benetako parte-hartzea bermatzeko era bakarra herrietako eta eskualdeetako markoak benetan sustatzea da.

Horregatik, erabakiak demokratikoki eta jendar-

tearen onespenearekin hartu behar dira. Halaber, parte hartzeko prozesuak gardenak, barnerratzai-leak eta, ahal den neurrian, lotesleak izan behar dira.

Hori guztia gauzatu ahal izateko, herritarrek informazioa eskura izan dezaten bideak erraztea ezinbestekoa da; izan ere, informazioa boterea da. Horrek Administrazio eta instituzio publikoak herritarrongana hurbiltzea eta haien funtzionamenduaren ezagutza jendarte osoari helaraztea ahalbidetzen du.

4.4.- HIZKUNTZA ETA KULTURA SOZIOEKONOMIAREN IKUSPEGITIK

-Kultura

Oraindik orain ez zaio kulturari aitortzen ekonomian duen pisua eta eragina. Krisi garaiotan, inoiz baino gehiago aitortu behar zaio kulturari enpleguak sortzeko eta ekonomia bultzatzeko ere izan dezakeen garrantzia. Adierazgarriena turismoan duen eragina izan badaiteke ere, bestelako arlo askotan ere kultura ekonomiaren garapenaren sinonimo ere bada. Baina horretarako kultura politikak irauli behar ditugu.

Kultura ezpiegitura erraldoien loraldia bizi izan dugu azken urteotan. Ikono bihurtu dira erai-kinak, eta alderdi arkitektonikoari ematen zaio garrantzia, edukiei eman beharrean. Izaera simbolikoa eta monumentala ematen zaie egungo kultura azpiegiturei. Hirietako ikono berri bihurtu dira. Kultura ikuskari moduan saltzen zaigu. Iraulki egin behar da egoera, erroto aldatu. Azpiegiturak herritarren zerbitzura jarri behar dira, kultura sortzeko gune bihurtu, herrien dinamizatzaileak, jendarte astintzeko guneak. Eta kultura espazio itxietan gauzatzen denaz gain, kaleetan, gune irekietan garatutakoa ere badela aitortu egin behar da; eta aitortzearekin batera, kultura eredu hori bultzatu. Sormenak baino ez du bermatzen herritarrengan benetako eragina izatea. Kulturguneek herritar guztien eskura egon behar dute, eta ez elite bakar batzuen eskura. Eta horretarako, ezinbestekoa da azpiegitura guztiek beren plangintza zehatza edukitzea, informazioan, esperimentazioan, ikerketan, erakusketan eta kontsumoan oinarrituak.

Kultura politiketan sormen artistikoaren, ikuskariaren, ekoizpenen, kultura industriaren, sustapenaren arteko oreka bilatu behar da, baina sormenak izan behar du ardatza, abiapuntua. Geure artistak, sortzaileak, musikariak, idazleak, bertsolariak, dantzariak, margolariak, eskultoreak...

babestu behar dira, horien formazioa, garapena, sustapena eta proiektzioa zein nazioartekotzea bermatzeko programa zehatzak garatuz.

Izan ere, kultur sormena instituzioek guztiz ahaztua dago. Oso gutxi dira kultura sortzeko espazioak eta politika programa zein plangintzak. Kultura ondareari ere bere garrantzia eman behar zaio. Museo-politika gehiegi landu izan da, batez ere makro-museoena, eta kultur kontsumoarena. Hortaz, ezinbestekoa da bestelako ahaleginak egitea. Bereziki, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak indartuz, zabalduz eta funtsen digitalizazioan sakonduz, industria ondarearen ikerketa, berreskuratzea eta balorizazioa landuz...

-Hizkuntza


Globalizazioaren eta beste hainbat faktoreren ondorioz sektore ekonomiko berri bat ari da sortzen: hizkuntzen industriarena hain zuzen ere. Hizkuntzen tratamenduetan zerikusia duten produktu eta zerbitzuak diseinatzeaz, ekoizteaz eta komertzializazioaz arduratzen den jarduera-sektorea da Hizkuntzen Industria. Bere baitan biltzen ditu: itzulpengintza, bikoizketa, software-lokalizazioa, hizkuntzen irakaskuntza, informazioaren kudeaketa, terminologia eta lexikografia, hizkuntzen teknologia eta enparauak.

Munduko hainbat ekonomia aurreratuetan, Kanadan esaterako, hizkuntzen industriaren sektorea egituratuta dago, gobernuaren babesaduna eta pisu ekonomiko adierazgarria du. Mundu mailan sektoreak 10.500 milioi euro fakturatu zituen 2011an eta horren % 45a Europari dago-kio. Euskal Herrian sektore horrek badu ezarpen tradizionala, eta egun sektore ekonomiko industrial moduan antolatzen ari da.

Hortaz, sektorea euskal erakunde publikoen I+G+B inbertsio-planetan lehentasunezko zatia izan behar da eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza planean ildo estrategikoen artean birkokatu behar da.

| | | |
|-----------|---|-----------|
| 1. | EGOERA:MUNDUA, ESPAINIAKO ESTATUA, HEGO EUSKAL HERRIA..... | 5 |
| 1.1.- | MUNDUA | 6 |
| 1.2.- | ESPAINIAKO ESTATUA | 8 |
| 1.3.- | HEGO EUSKAL HERRIA | 10 |
| 2. | PROIEKTU ESTRATEGIKOAREN OINARRIAK..... | 15 |
| 2.1.- | EUSKAL HERRI BURUJABEA | 16 |
| 2.2.- | EUSKAL HERRI EUSKALDUNA ETA JENDARTE KOHESIOA BILATZEN DUENA. | 16 |
| 2.3.- | ALTERNATIBA INTEGRALA BEHAR DU EUSKAL HERRIAK. | 16 |
| 2.4.- | ALTERNATIBA ERAIKITZEKO PRINTZIBIOAK ETA HORREN OINARRI DIREN BALOREAK..... | 17 |
| 1.- | Printzipio demokratikoen defentsa. | 17 |
| 2.- | Heziketa prozesu kolektibo eta solidarioa: herritar askeentzako Hezkuntza | 18 |
| 3.- | Betebehar, eskubide eta aukeretan berdinak diren gizon-emakume askez osatutako jendartea. | 18 |
| 4.- | Jendarte plurala. | 19 |
| 5.- | Justizia sozialaren bidean, aberastasuna banatu. | 19 |
| 6.- | Eskubide sozialak. | 20 |
| 7.- | Sektore publikoaren lidergoa..... | 20 |
| 8.- | Ekonomiaren, jendartearen nahiz ingurumenaren arloan arduratsuak diren eta Ama Lurraren iraunkortasuna bermatzen duten enpresak. | 20 |
| 9.- | Garapen dibertsifikatua eta plurala..... | 21 |
| 10.- | Ama Lurrarekin bat egiten duen jendartea. | 21 |
| 11.- | Aniztasunean, elkartasunean eta internazionalismoan oinarritutako jendartea..... | 21 |
| 3. | BURUJABETZA EKONOMIKOAREN BEHARRAZ..... | 23 |
| 3.1.- | EGUNGO MARKOAK ERAKUSTEN DIZKIGUN MUGAK. | 24 |
| | Hezkuntza sistemari dagokionez | 25 |
| | Berrikuntza sistemari dagokionez | 25 |
| | Lurralde artikulazioari dagokionez | 25 |
| | Finantza sistemari dagokionez | 25 |
| | Produktzio sektoreak arautzeari eta planifikatzeari dagokienez | 26 |
| 3.2.- | ZERTARAKO DUGU MARKO INSTITUZIONAL BERRI BATEN BEHARRA?..... | 26 |
| 3.3.- | INDEPENDENTZIA POLITIKO ETA INSTITUZIONALAZ. | 27 |
| 4. | EUSKAL HERRIKO EREDU EKONOMIKO ETA SOZIAL BERRIA. JARDUN-EREMUAK ETA PROPOSAMENAK..... | 29 |
| | Planetaren mugak errespetatuko dituen garapen endogenoaren aldeko apustua..... | 30 |

| | |
|---|----|
| 4.1.- KRISI EKONOMIKOARI AURRE: INBERTSIORIK ONENA, EUSKAL HERRIA | 30 |
| A – SEKTORE PRODUKTIBOAK..... | 30 |
| 1.- Eredu produktiboa: EUSKAL HERRIKO EHUN PRODUKTIBOAN INBERTITZEA..... | 30 |
| 2.- Lehen sektorea..... | 31 |
| 3.-Bigarren sektorea: Eredu industrialia..... | 33 |
| 4.- Hirugarren sektorea; Zerbitzuak..... | 37 |
| 4.1.- Lan erreproduktiboa, zainketen ekonomia eta bizitzaren iraupenerako lana..... | 37 |
| 4.2.-Sektore publikoa..... | 37 |
| 4.3.- Komertzioa..... | 38 |
| 4.4.- Finantza sektorea: Finantza sistema publikoa sortzea..... | 38 |
| B.- LANA ETA ENPLEGUA..... | 38 |
| Langileriaren eta herri sektoreen zerbitzura dagoen eredu..... | 38 |
| Kalitatezko enplegua sortzeko eta lanbide prestakuntzarako politika eraginkorrak adostea..... | 39 |
| C.- POLITIKA FISKALAK..... | 40 |
| Bestelako politika fiskala helburu izango duen sektore publikoa..... | 40 |
| 4.2.- KRISI EKOLOGIKOARI AURRE | 41 |
| LURRALDE ARTIKULAZIOA: Lurralde antolaketa eredu berria..... | 41 |
| -Garraio eredu: Azpiegituren arloko estrategia berria..... | 42 |
| -Energia eredu berria..... | 42 |
| -Biodibertsitatearen eta natur baliabideen defentsa..... | 43 |
| -Hondakinen politika eta ekonomia berdea..... | 43 |
| 4.3.- KRISI SOZIALARI AURRE | 44 |
| -Zerbitzu sozialen sistema: Zerbitzu publikoak eta sozialak..... | 45 |
| -Hezkuntza: Hezkuntza sistema propioa..... | 46 |
| -Osasun publiko unibertsala eta doakoa..... | 46 |
| -Genero diskriminaziorik gabeko eredu..... | 47 |
| -Etxebizitza..... | 47 |
| -Parte-hartze demokrazia..... | 48 |
| 4.4.- HIZKUNTZA ETA KULTURA SOZIOEKONOMIAREN IKUSPEGITIK | 49 |
| -Kultura..... | 49 |
| -Hizkuntza..... | 50 |



Alternatiba



aralar



ezker abertzalea